



Durango, euskal kulturaren plaza

48. Durangoko Azokak zabaldu ditu ateak. Abenduaren 8ra bitartean Durango euskal kulturaren topagune izango da. Azokarako prestatutako zortzi guneeetan, guztira, 130 ekitaldi antolatuta dituzte. Aretu Nagusia, Ahotsenea, Kabi@, Irudienea,

Saguanbara, Plateruena, Szenatokia eta Azokabera inoizko kultur eskaintza zabalenarekin dagoz. Bestalde, aurtengo Argizaiola saria William Douglas antropologo amerikarrari emano diote. Kultura gonbidatua, berriz, Eskozia da.

<p>MURUETABARRI S. COOP.</p> <p>Muruetatorre auzoaren ondoan</p> <p>AUKERARIK SEGURUENA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Logela bi, 211.000€-tik aurrera • Hiru logela, 241.000€-tik aurrera • Garaje, trasteleku eta sukalde erabat ekipatuak barne 	<p>DURANGO</p>  <p>ERAIKUNTZA-LANAK HASITA DAUDE</p>	<p>Finantziatua: </p> <p>Durangoko bulegoa: Landako etorbidea, 5 Tel.: 946 056 291 / 630 984 532 durango@arrasate-ekogi.com</p> <p>25 URTE ZIRENIN</p> <p> arrasate ekoizlea kooperatiboa lurraldeko gozatu eta kooperatiboa da</p> <p> ekogi produktu ekologikoak</p>
--	--	---

➤ Durangoko Azoka - Guneen mapa





ATXARTE
MENDIKO DENDA

ESKALADA • BOULDER • MENDIA • TRAIL RUNNING

Lafuma charke  LURBEL PETZL

T. 946 550 455
Santa Ana plaza
DURANGO

Atxartemendikodenda@gmail.com

HITZALDIA
Aitor Urresti
EHUko irakaslea

- Gaur egungo enpresa handietatik independenteagoak izatea.
- Edozein herritarrek jatorri berriztagarria duen energia eskura izatea.
- Pertsona guztiak parte har dezaketen kooperatiba bilakatzea.
- Gaur egungo eredu energetikoa aldatuta, kontsumo arduratsua bultzatzen du.
- Herritarren parte hartzearen aldeko eta energia berriztagarrien aldeko mugimendu soziala sortzea.



goiener
Energia berriztagarrien sorburua eta erosie kooperatiba

Eguna Abenduak 11, eguaztena
Ordua 19:30
Lekua Hitz liburu-denda
Artekalea 14, Durango





ARETO NAGUSIKO EGITARAUA

Abenduak 5, eguena

10:30 Ateak zabaldu. Liburu eta disko salmenta. Sortzaileak euren obrak sinatzen.

11:00 Ilustrazio tailerra, Miren Gonzalezen eskutik. Ikasleentzako.

12:00 Disko aurkezpena: 'Bakarrak eta Libre: Imanol Urbietaren kantuek'. Gari Berasaluze, Anjel Valdes eta musikariak (Elkar).

13:00 Liburu aurkezpena. 'Euskal Herriaren Historia laburra'. Iñaki Egaña eta Martin Anso (Txertoa).

13:30 Aurkezpena. 'Gizarte ekonomia eta politika publikoak'. María Ubarretxena, Gotzon Gondra eta Adrian Zelaia (Eusko Jaurilaritza eta EKAI Center).

14:00 Ilustrazio tailerra, Miren Gonzalezen eskutik. Ikasleentzako.

15:30 Sari banaketa. Ondarea dastatzen tailerra (Durango Turismo Bulegoa eta Hazi fundazioa).

16:00 Bilduma aurkezpena. 'Munduko poesia Kaiarak'. Beñat Sarasola (Susa).

16:30 Liburu aurkezpena. 'Consejos de guerra contra el clero vasco (1936-1944). La iglesia vasca vencida'. Anxo Ferreiro Currás eta Julia Monge (Intxorta 1937 kultur elkarteak).

17:00 Hitzaldia: 'Pensando en las musarañas: museoak liburugintzan'. Asier Madarieta (Bizkaiko/Bizkaiko Museoak).

18:30 Inaugurazio ekitaldia. Herrialde gonbidatua: Eskozia (Gerediaga).

20:00 Ateak itxi.

Abenduak 6, barikua

10:30 Ateak zabaldu. Liburu eta disko salmenta. Sortzaileak euren obrak sinatzen.

11:00 Liburu aurkezpena. 'Munduari bira gure alabekin. Vuelta al mundo con mis hijas'. Isabel Aliaga eta Roberto Salazar (Afedo).

11:30 Liburu-DVD-CD aurkezpena. 'Hala bedi: 30 urte kolpez kolpe'. Iker Saenz de Argandoña, Eñaut Iraeta eta Manex Agirre (Bonberenea ekintzak).

12:00 Liburu aurkezpena. 'Eskozia: independentziara bidaia XXI. mendeko Europan'. Txente Rekondo, Jule Goikoetxea, Unai Apaolaza, Txutxi Ariznabarreta (Independentistak sareak).

12:00 Mahai-ingurua. 'Eskoziatik Euskal Herrira: autodeterminazio prozesuak'. Moderatzailea: Zelai Nikolas. Hizlariak: Iñigo Urrutia, Jule Goikoetxea, Txente Rekondo eta Asier Blas.

13:30 Bilduma aurkezpena. 'Euskal Herriko Musika Argazkilariak. Saioa Cabañas, Egoitz Irizar eta Olaia Cervera (Banizu Nizuke Kolektiboa).

14:00 Liburu aurkezpena. 'Zutani'. Nerea Mendizabal (Xangorin Hik Hasi).

14:30 Liburu aurkezpena. 'El euskera de Alava'. Koldo Zuazo (Arabako Foru Aldundia).

15:30 Liburu aurkezpena. 'Batzarrak, jatorrizko antolaketa'. Patxi Azparren eta Mentxu Zorita (Euskaria fundazioa).

16:00 Sari banaketa. Gaztezulo bertso lehiaketa. Aitor Abaroa eta saridunak (Gaztezulo).

16:30 Liburu aurkezpena. 'El libro de la Navarra perdida'. Pedro Guerra (Gara).

17:00 Liburu aurkezpena. 'Gal 30 urte'. Eider Goenaga eta Martxelo Otamendi (Berria eta Elkar).

17:30 Proiektu aurkezpena. 'Photo Books. Noctis Labyrinthus. Hiru begirada iluntasunari. Angst, Ero eta Moo'. Txelu Angoitia, Segun Lazkano eta Jesus Mari Arruabarrena.

18:00 Liburu aurkezpena. 'La caza de brujas, censura y persecución contra el rock vasco'. Mariano Muniesa eta Pere Homs (Quarentena Ediciones).

18:30 Liburu aurkezpena. 'Durangaldea historia laburrean'. Jon Irazabal (Gerediaga).

19:00 Proiektu aurkezpena. 'Zuzeneko taupadak'. Eider Iturriaga eta Guille Urkijo.

19:30 Aurkezpena. 'Gipuzkoarako estrategia ekonomikoa'. Pedro Iturbe, Itziar Alberdi eta Adrian Zelaia (Gipuzkoako Foru Aldundia eta EKAI Center).

20:00 Ateak itxi.

Abenduak 7, zapatua

10:30 Ateak zabaldu. Liburu eta disko salmenta. Sortzaileak euren obrak sinatzen.

11:00 Liburu aurkezpena. 'Bilbainos con diptongo: guía indispensable para ser de Bilbao'. Jon Uriarte eta Pedro Garcés (Naroa Dreams).

11:30 Disko aurkezpena. 'Musikari'. Joxan Goikoetxea eta Iñaki Salvador (Musikari).

13:30 Liburu aurkezpena. 'Joxe Iturria: memorias de guerra'. Arantzazu Amezaga (Xabier irujó).

14:00 Aurkezpena. 'Eskualdeko toki garapena'. Eñaut Apaolaza eta Adrain Zelaia (EKAI Center).

14:30 Liburu aurkezpena. 'Berrizko baserriak'. Jon Ander Ramos Martinez eta Rolando Isoird Refoyo (Berrizko Udala).

15:00 Liburu aurkezpena. 'Eusebio Osa: Belaunaldi baten lekukoa'. Pako Sodupe, Xabier Etxaniz eta Txipi Ormaetxea (Euskal Herriko Unibertsitatea).

15:20 Liburu aurkezpena. 'Mailopeko euskara'. Koldo Zuazo eta Xabier Etxaniz (Euskal Herriko Unibertsitatea).

15:40 Liburu aurkezpena. 'UPV/EHUko euskarazko ikasliburu berriak'. Xabier Etxaniz eta Jesu Mari Makazaga (Euskal Herriko Unibertsitatea).

16:00 Liburu aurkezpena. 'Biarnoko euskaldunak, historiaren eta hizkuntzen bidegurutzean'. Philippe Etxegorri (ZingiZango Legazpiko euskara elkarteak).

16:30 Liburu aurkezpena. 'Euskararen kate hautsiak: hizkuntza zapalkuntzaren memoria'. Dabid Arnaut eta Paul Bilbao (Euskal Memoria Fundazioa eta Kontseilua).

17:00 Liburu aurkezpena. 'Jaizkibel Ama Harri'. José Manuel Cortizo, Xabi Mina eta Enara.

17:30 Liburu aurkezpena. 'Euskal Herriko surf gida'. Haritz Larrañaga eta Mikel Troitiño (Gara).

18:00 Ekitaldia eta bertso saio laburra. 'Bizkaiko Bertsozale Elkarteak: 30. urteurren'. Asier Ibaibarriaga, Oihana Bartra, Igor Elortza eta Xabier Amuriza (Bizkaiko Bertsozale Elkarteak).

19:00 Liburu aurkezpena. 'Garai: ohiturak, jaiak eta dantzak'. Otea Loran elkarteak eta Gerediaga Elkarteak.

19:30 Liburu aurkezpena. 'Europako nazioak'. Urtzi Ihitza (Lemuria).

20:00 Ateak itxi.

Abenduak 8, domeka

10:30 Ateak zabaldu. Liburu eta disko salmenta. Sortzaileak euren obrak sinatzen.

11:00 Liburu aurkezpena. 'Vicent Andrés Estellés: antologia elebiduna valentziera/euskara'. Gerardo Markuleta, Héctor Arnau, Paco Inclán eta Luis Carmona (Bostezo Libres, Burjassot eta Godellako udalak).

11:30 Prentsaurrekoa.

12:30 Liburu aurkezpena. 'Zorion handiegia' (Alice Munro Nobel saria 2013). Nagore Tolosa (Meettok).

13:00 Aurkezpena. Elkarrizketa-hitzaldia. 'Ortzadar, Ramon Saizarbitoria gorazarrea'. Ramon Saizarbitoria, Bingen Zupiria eta Iñaki Mendizabal (Noticias taldea).

14:30 Liburu aurkezpena. 'Gela bat norberarena' (Virginia Wolf). María Colera eta Juan Garzia (Consonni).

16:30 Liburu aurkezpena. 'Ezkioga en el 80 aniversario de la Pastoral de Mons'. Oscar Alvarez Gila, Antonio M. Artola Arbiza eta Jon Ander Ramos Martinez.

17:30 Liburu aurkezpena. 'The Basque Diaspora Webscape: Identity, Nation, and Homeland. 1990s/2010s'. William Douglass eta Pedro J. Oiarzabal.

18:00 Aurkezpena. 'Bizkaiko ekonomiaz'. Itziar Fernandez eta Itziar Alberdi (Bizkaiko Foru Aldundia eta EKAI Center).

20:00 Ateak itxi.

> Durangoko Azoka

Zortzi gunetara hedatuko da Durangoko Azoka

Landakoko standez gainera, Areto Nagusia, Ahotsenea, Kabi@, Irudienea, Saguganbara, Plateruena eta Szenatokia prest daude



Irudiazko Durangoko Azokan ateratako irudia, Landako Gunean.

> JONE GUENETXEA

Kulturaren plaza geroago eta espazio zabalagoa hartzen ari da Durangon. Azokako zortzi gunetara 130 kultur ekintza antolatuko dituzte abenduaren 5etik 8ra bitartean. Liburu eta diskoen aurkezpenak, tailerrak, proiektzioak, mahai-inguruak, kontzertuak, hitzaldiak... Beraz, kulturazaleentzako eskaintza zabalago izango da hurrengo egunotan, Durangon.

Ahotseneak kokapen berria du aurtengoa. Trenbidea lurperatuta dagoenez, Plateruena ondoko pasabidetik joan, eta trenbidearen beste aldean karpak erraldoi bat jarri dute. Montevideo etorbideko orubean espazio berria estreinatu du, beraz. Karpak espazio bi ditu. Lehengoan, egileek beraien lanen inguruan berba egingo dute kazetariarekin eta baita publikoarekin ere. Bigarrenetan, berriz,

sortzaileek beraien diskoak zuzenean aurkezteko aukera izango dute. Irudienea ere leku berria izango du Zugaza zinemaren.

Nobedadeak

Euskal kulturaren ekoizleek "Durangoko Azokan egon nahi dute, euskal kulturaren plaza nagusia delako", azpimarratu du Nerea Mujika Gerediaga Elkartearen presidentek 48. Durangoko Azokaren aurkezpenean. Aurtengo azokak 355 nobedade dakartza Durangora: 226 liburu, eta 68 disko. Aurtengo uzta erakusteko, 238 erakusmahai ipiniko dituzte argitaletxe eta ekoiztetxeek, beraz, ia baina 15 stand gutxiago egongo dira. Antolatzaileek diotenez, parte-hartzaile kopurua mantendu egin den arren, batzuek stand kopurua jaistea erabaki dute.

Musikari dagokionez, aurtengo sei stand gehiago jarriko dituzte.

Talde askok autoekoizpenaren aldeko apustua egin dute: Damba Kameluak, Musika Zuzenean, Ze Esatek!, eta Zea Mays.

Bestalde, Azokara ere heldu da krisia. Durangoko Azokak 532.000 euroko aurrekontua du aurtengoa. Iazkoagaz alderatuta, %10 txikiagoa da kopuru hori. Zailtasun ekonomikoek min-

Azokarako prestatutako zortzi gunetara, guztira, 130 kultur ekintza antolatuko dituzte

tzatu zen Mujika Azokaren aurkezpenean. Gerediagako presidentek azaldu zuenez, "aurrekontu honekin nekez antolatu daitezke Durangoko Azoka bezalako ekitaldi bat: euskal kulturaren erreferentziakoa den azoka

ezin daitezke estu eta larri ibili, eta beharrezko du denon babesa". Azoka diruz babesten duten erakunde publiko eta pribatuekin batera, urtero Durangoko Azokara etortzen diren milaka euskaltzaleren eta ehunka lanen inplikazioa" goraiatu zituen Gerediagako presidentek.

Izen aldaketa

Durangoko Liburu eta Disko Azoka izen berriarekin dator aurtengoa. Durangoko Azoka izena jarri diote, liburu eta disko salmenta baino zabalagoa delako.

Eskoziarren azoka

Eskoziako kultura ezagutzeko aukera eskainiko du aurtengo Azokak. Gaur, 18:30eko inaugurazio ekitaldian John Stewart gaita-jotzaileak eta John Bol-dun gitarra-jotzaileak musika erakustaldia eskainiko dute. Ondoren, Joxemari Carrerek Jaun

Zuria Bizkaiko jaunaren kondaira irakurriko du. Ostiralean, berriz, *Eskoziatik Euskal Herri- ra: Europako autodeterminazio prozesuak* mahai-inguruan Iñigo Urrutuak (EHUko irakaslea), Asier Blasek (EHUko irakaslea), Jule Goikoetxeak (EHUko irakaslea) eta Txente Rekondok parte hartuko dute. Zelai Nicolás izango da solasaldiaren

Eskoziako kultura ezagutzeko aukera eskainiko du aurtengo Durangoko Azokak

gidari. Zapatuan, Eskoziako musikagaz girotutako kalejiran parte hartuko du Stewart gaita-jotzaile eskoziarrak. Catriona Lexy Campbell aktore eskoziarra ere Azokan izango da.

ALCONADA AUTOBUSAK



Joan-etorriak sagardotegietara, ezteguetara, Errioxara, elurretara, leku turistikoetara..

Profesionalak gara lantegietarako, ikastegietarako eta kiroltaldeen partiduetarako joan-etorrietan.

Beti preziorik onena!
Kontsultatu, eta aurrekontua egingo dizugu.

www.autobusesermua.es

Tel.: 943 172 415 - 610 283 939 • info@autobusesermua.es - busalconada@gmail.com

Anboto TABERNA JATETXEA

- o eguneko menuak
- o menu bereziak
- o karta
- o era guztietako pintxoak
- o razioak ...

aurrekontuak kontsultatu konpromisorik gabe!



Goienkale kalea, 14 - 48200 DURANGO ☎ 946 811 020




EPOCA

ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK -
ALTZARIAK - DEKORAZIOA

**Zuk nahi duzun etxea
egiten lagunduko dizugu.**

www.epocasukaldeak.com

jarrai gaitzazu facebook-en!

 [epoca.goro](https://www.facebook.com/epoca.goro)



Tel.: 946 472 012
epoca@epocasukaldeak.com

Madalenoste, 7
48200 Durango



William A. Douglass | Antropologoa, Argizaiola saria jasoko du

“Euskal kulturaren urteko ospakizunik barneratzaile eta handiena da Azoka”

William Douglasssek euskaldunen emigrazioaren gainean egindako ekarpen oparoa aintzatetsiko dute bihar San Agustin kulturguneko ekitaldian



2000. urtera arte Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko gidaria izan zen.

> JOSEBA DERTEANO

William Douglass antropologoa amerikarrak (Reno, Nevada, 1939) sakonki aztertu izan du euskaldunen emigrazioa. Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko gidari zela, batez ere, Ameriketako Estatu Batuetara joandakoen bilakera aztertu zuen, baina baita Hegoamerika eta Australiara bidea hartu zutenena ere. Euskaldunekiko jakintza eta interes horrek zeregin delikatu

bateko partaide izatera eraman zuen orain 10 urte. 2003an Elkarrizketa Humanitarioen Henry Dunant zentroaren eta ETaren arteko hartu-emanetan bitartekari jardun zuen. Bere ikerketako ondorioak hainbat liburutan batu izan ditu. Eta euskaldunek munduan zehar egindako ibiliren gaineko ekarpen oparoa aintzatesteko, Argizaiola saria emango diote. Ekitaldia abenduaren 6an izango da, 20:30ean, San Agustin kulturgunean.

Argizaiola jaso aurreko egunetan euskal hedabideen maratoia egiten dabil. Elkarrizketak batean eta bestean, bata bestearen atzetik. *Anbotok* eginiko galderei erantzuteko astia ere hartu du. Saria jasotzea “ohore handia” dela adierazi du. Aurtengoa ez da Durangoko Azoka bisitatuko duen lehenengo biderra. Aurretik “beste bitan” egonda dago, beti ere “liburu erosle kurioso gisa”. Durangoko Azoka “euskal kulturak urtean daukan

ospakizunik barneratzaileena eta handiena” dela uste du.

Euskaldunekiko interesa 1963an piztu zitzaion. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean gaztelania eta literatura ikasten zebilela, bazekien bere etorkizuna antropologiari eta giza mugimenduei eskaini gura ziela. Estatu Batuetara bueltan, Chicagoko antropologia ikasketak burutu ondoren, baserri guneak jasaten ari ziren exodoa bertatik bertara ikertu zuen Aulestin eta Etxalarren. Handik lau urtera, Euskal Ikasketen Zentroa sortu zuten, eta hango gidaritza eskaini zioten. Harrezkero, euskaldunen emigrazioa eta emigrazio horien bilakaera eta ondorioak gertutik aztertu ditu. Jon Bilbaogaz batera 1975ean argitaratutako *Amerikanuak: the Basques of the New World* eta 1985eko *Basque shepherders of the American West* lanak dira ikerketa horien erakusgarri esanguratsuenetakoak.

2003ko bitartekari lana

Orain 10 urte ETaren eta Elkarrizketa Humanitarioen Henry Dunant zentroaren arteko bitartekari izatea onartu zuen.

“

Aurretik beste bitan egon naiz Durangoko Azokan, beti ere liburu erosle kurioso gisa”

Handik denbora batera *Argia* astekarian eman zuen hartutako ardura horren testigantza. Bitartekari lana diskrezioz egin, eta inoren arretarik ez erakartzeko, sasoi hartan erabateko gaurkotasuna zuen Ibarretxe planari buruz artikulua bat idatzi gura zuen irakasle gisa aurkeztu zuen bere burua hemen. Zamudioko parke teknologikoaren inguruko hotel batean hartu zuen ostatu. ETaren bitartekariagaz batu eta berba egin aurreko orduak tentsioz bizitzen zituela adierazi zuen. Harrezkero,

Euskal Herriko gaurkotasuna aldatu egin da, eta prozesu politikoa “urrunetik” jarraitu duela adierazi du: “Nik neuk ez dut eskurik hartu huts egin zuen gure ekimenetik hona. Pentsatu gura dut zerbait lortu genuela, eta gaur egungo egoera horren gainean eraiki dela. Gaur egungo egoera sortzea lortu duten guztiak zoriondu nahi ditut, eta zuhurtasunez bada ere, baikor

“

Euskal gatazkak erabateko irtenbide politikoa lortu aurretik oraindik erronkak geratzen direla uste dut”

nago, eta azkenean indarkeria atzean utzi dugula uste dut. Hala ere, uste dut oraindik zenbait erronka geratzen direla euskal gatazkak erabateko irtenbide politikoa lortu aurretik”.

Egunero idazten du

Orain 13 urte Euskal Ikasketen Zentroko kargua utzi zuen, eta, harrezkero, “beste edozeren gainetik”, bere burua idazle kontsideratzen duela adierazi du. Gaur egun, horretan dihardu “egunero”. “Euskaldunei lotutako ikerketa eta idatziak egiten dihardut oraindik; batez ere, antipodetan eta Hego Amerikan dauden euskaldunei buruz. Horrez gainera, fikzioa idazten ere ari naiz, eta baita euli-arrantzari –bere afizioetako bat– buruz ere”, azaldu du Douglasssek.

“

Euskaldunei lotutako idatziak egiten dihardut oraindik, batez ere, antipodetan eta Hego Amerikan daudenei buruz”

Azkonizaga
 CRUZCAMPO • HEINEKEN • BUCKLER • AMSTEL • SHANDY • PEÑA CLARA • LA ASTURIANA
 Bº Ortuzar, 1 • 48213 Izurza (Bizkaia) Tel/Fax: 94 681 06 52 azkonizaga@azkonizaga.com
 www.azkonizaga.com

Juego bolos **ostatua - hostal**
 San Agustinalde nº 2 - 1º 48200 Durango Bizkaia
 T: 94 621 54 88 info@juegobolos.com www.juegobolos.com

ITURRIAGA SUKALDEAK
 Gremioen koordinaketa
 Trañatxoste, 2 - 48220 Alabodino - Tf. | fax: 94 655 07 22 - 605 740 176



Hemen, Kafeari
Baque'
esaten diogu

Ostalaritzako
marka liderra
Euskadin



zamióbla autator gained kirbaste feiha batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA

amió eta autoen gainetik beste leiho batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA

48. DURANGOKO AZOKA

kulturaren plaza

2013ko abenduaren 5etik 8ra

www.durangokoazoka.com

@durangokoazoka



ANTOLATZAILEA **gorediaga**

BABESLE NAUSIA **BFA DFB**

BABESLE PUBLIKOAK **EUSKO INGARAITZA GOBERNO VASCO**

DURANGO Uda • Ayuntamiento

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.alava.net

euskotren

BABESLE PRIVATUAK **bbk** **EROSKI zurekin**



Catriona Lexy Campbell | Lewis, 1982 | Idazle eta aktore eskoziarra

“Apustu politikoa egin dugu antzerki gaelikoa lehen lerrora ekartzeko”

Eskoziako kultura eta hizkuntza ekarriko ditu Catriona Lexy Campbell idazleak abenduaren 8an, 17:30ean, San Agustinen izango den solasaldira

> ITSASO ESTEBAN

Oier Guillan idazleagaz eta Ixabel Etxebarria irakasleagaz jardungo du Catriona Lexy Campbell idazleak, Durango Azokan, domekan. ‘Zer eragin du egoera soziopolitikoak antzerkigintzan eta alderantziz?’ galdera erantzutera etorriko da.

Zer helburugaz zatoz Durango-ra? Zelan hartu duzu gonbita? Oso emozionatuta nago Durango Azokan parte hartzeko aukeragaz. Sekula ez naiz Euskal Herrian egon, baina esan didate oso leku polita dela, eta euskaldunak oso jende irekia eta lagunkoia zaretela. Bereziki gogotsu nago herria ezagutu eta Azokaren inguruan eskaintzen duen guztiaz gozatzeko.

Zer harreman daukazu Euskal Herriagaz? Zer irudi daukazu Eskozian gure herriaz? Nire inguruko gaelikoek euskal-

dunak zentzu askotan pareko edo kide bezala ikusten ditugu. Gure herriek munduan daukaten lekua aldarrikatzeko, antzeko esperientzia eta borrorak bizi izan ditugu. Bi herriek ulertzen dugu zeinen inportantea den, gero eta homogeneoagoa den mundu honetan, gure hizkuntza eta kultura mantentzea.

Ezaguna duzu Jaun Zuriaren kondaira? Bizkaiko lehenengo jauna Eskoziatik etorri zela kontatzen duen hori?

Ez dut ezagutzen, ez! Baina bilatuko dut horren berri. Oso interesanteak iruditzen zaizkit istorio horiek, eta espero dut Durangon gauza gehiago ikastea.

Politikak antzerki ekoizpenean daukan eraginari buruz jardugo duzue solasaldian. Zer garrantzi du politikak kulturari? Gaelikoz idatziriko literaturari dagokionez, politika hizkuntza-

gaz eta sormeneko arteekin oso lotua dagoela uste dut. Eskozia osoan hitz egiten zen hizkuntza izatetik, desagertzeko arriskuan dagoen hizkuntza gutxitu izatera igaro da gaelikoa: mendetan, jarrera politikoez eragin handia izan dute gaelikoarengan.

“*Nire inguruko gaelikoek zentzu askotan kidetzat dugu euskalduna*”

Eragin positiboagoa du politikak kultura gaelikoan egun? Independentziari buruzko eztabaidak gaelikoak eta arteak Eskoziaren etorkizunean izan beharreko rolen inguruko eztabaida sakontzea ekarri du. Horretaz jardungo dut nire ber baldian. Eta politikak Euskal Herriko sorkuntzan eduki duen eta gaur egun duen eraginaz gehiago ikastea ere espero dut.

“*Literatura gaelikoa argitaratzen duten editorialek esfortzu handia egiten dute*”

Nolako egoera bizi du, gaur egun, Eskozian gaelikoz egiten den antzerkiak? Apustu politikoa egin dugu antzerki gaelikoa lehen lerrora ekartzeko, eta pizkunde moduko



Catriona Lexy Campbell.

bat bizi du. Azken urte bietan asko hazi da ekoizpen profesional zein amateurren kopurua. Pauso handiak dauzkagun arren oraindik emateko, norabide egokian goazela uste dut.

Zeintzuk dira, Eskozian gaelikoz idatzi eta argitaratzeko daukan indargune eta ahulgu- ne nagusiak?

Alde batetik, erronka handia da gaelikoz idaztea. Irakurle kopurua mugatua da, eta oso editorial gutxi dago lan berriak argitaratzen dituen. Bestalde, gure lanak argitaratzeko, kanpoko finantziazioaren menpe egoten gara sarri. Baina, era berean, egia da literatura gaelikoa argitaratzen duten argitaletxeek esfortzu handia egiten dutela askotariko lanak plazaratzeko, eta idazkera berriak bultzatzeko.

Zein izan da zure esperientzia zentzu horretan? Zailtasunik eduki duzu zure lana publikatu eta plazaratzeko? Egia esan, babes handia sentitu

izan dut nire ibilbide osoan. Uste dut, beharbada, ingelesez idatzi izan banu edukiko ez nituzkeen hainbat aukera izan ditudala. Edozelan ere, niretzat aukera naturalena da gaelikoz idaztea: berez ateratzen zaidana da.

Helduentzat ez ezik, umeentzat ere idatzi izan duzu, eta kulturari oso loturiko familia batean hasitakoa zara. Zenbateko garrantzia du, zure ustez, transmisioak kultura euskaldun- ean eta gaelikoan?

Uste dut hizkuntzek bizirauteko behar-beharrezkoa dela lotura estua egotea belaunaldien artean, eta hiztunak kontziente izatea hizkuntzak eta kulturak atzetik dakarren guztiaz. Uste dut zorte handia izan dudala, nire hizkuntzaren jatorriaren eta dakarren guztia gaineke kontzientzia sendoa transmititu didan familia batean hezi nindutela. Aldi berean, ingurukoek beti bultzatu naute hizkuntza- gaz zein neure sorkuntzaren mu- gekin esperimentatzera.

Gazteei begira idatziriko bi liburu plazaratu ditu

Cluicheadairean liburua eta An t-Ionnsachadh Bòidheach trilogiaren lehenengo alea kaleratu berri ditu Catriona Lexy Campbell. Homofobia oso zabalduta dagoen futbolarren esparruan bizi den jokari gazte homosexual baten istorioa kontatzen du lehenengoak, eta gazteei zuzenduriko trilogia bateko lehenengo lana da bigarrena. Plaga batek munduko heldu guztiak desagertarazi ostean, neska

eta mutil biren biziraupen istorioa kontatu du bertan. Egoera zailtan aurrera egiten duten pertsonaiez, bizirik irauten dutenez, askotan idazten duela dio Campbell.

Literatura gaelikoaren gai nagusiez galdetuta, “leku guztietan bezala, maitasuna, heriotza, politika eta familia” gailentzen omen dira. Baina mina eta umorea, eta naturaz gaindiko gaiez ere asko idazten dute, idazlearen ustez.

Tel.: 944 247 566
Ibañe de Bilbao kalea,
3-3º Departamentua, 1 BILBAO
www.laurendi.es

LAURENDI
PROYECTOS Y PROMOCIONES

Informa zaitez!

ABADIÑON
GANTZA ZELAIETA EGOITZA
(Muntzaratz auzoa)

BIZITZEKO PRESTI
EROSI ORAIN ETA LOR ITZAZU BALDINTZA ONENAKI!
ETXE-BEHEAK ETA GOIKO ETXEBIZITZAK TERRAZA ZABALEKIN

LABORAL Kutxaren finantziarioekin

AZKONIZAGA JATETXEA
Euskal Sukaldaritza
Azoka egunetan zabalik!

Eguneko menua 10€
Menu berezia 15€

Ortuzar, 1 IZURTZA
Tel.: 946 812 025

Xabier Amuriza | 1941, Amorebieta-Etxano; Berrizen bizi da | '4X4 Operazioa' eleberria idatzi du

“1968ko itxialdia estamentu baten matxinada izan zen”

Derioko seminarioan egindako itxialdia da kontakizuneko gai nagusia

> JOSEBA DERTEANO

‘Joan ziren’ zikloko laugarren eleberria da ‘4X4 Operazioa’. 1968an Derioko seminarioan 70 bat abadek egindako itxialdia erdigune duela, kontakizun kolektibo baten narrazioa egin du.

Gogor apaiz mugimendukoek itxialdi sonatua egin zenuten. Frankismo katoliko-nazional ereduaren barruan, estamentu klerikalaren matxinada kolektibo bat izan zen. Talde handi baten ordezkari gisa egin genuen itxialdia.

Gertaera hori da eleberriko erdigunea?

Gertaera inportantea izan zen, eta nobelako gai nagusia da. Baina itxialdia hilabete bateko kontua izan zen, eta gertaka-

ri horretatik salto asko eginen ditut 1965etik 1971ra arteko urteetan jazotako beste gertakari batzuetara. Gai zentralagaz hari bat eginda, beste hainbat gai ere badaude. Esate baterako, orduko udalatxe askotako udalbatzak herriko jaietako meza nagusira bandera nazionalagaz joaten ziren, eta gertaera hori ere bada. Horrekin batera, beste hainbat: orduko grebak, Italiara eta Erromara egindako bidaiak... Beraz, gai zentralaren inguruan beste hainbat agertzen dira.

Aurreko eleberrian ‘Olatu bat kuartelen gainetik’- gai bera jorratu zenuen, baina pertsonaia nagusiaren ikuspegitik.

Eleberri horretan lehentasuna niari eman nion, narrazzailea pertsona baten esperientzia ba-

liatuta ari zen kontaketa egiten. Oraingoa, kontakizun kolektibo bat da. Narraziorako behar denean nitasuna ere sartzen dut, baina narrazioan *gu*-a da nagusiki agertzen dena. Gertakizun baten narrazio kolektiboa da.

Idazkeran aurrekoen bidetik jo duzu?

Elkarrizketa gehiago daude, eta gertaerek eta narrazioak beste abiadura bat dute. *Euskarra Batuaren bigarren jaiotzan* –2010ean argitaratu zuen saikera– erabili nituen kriterioen arabera idatzi dut. Hizkuntzak konplexutasun apur bat ere badi, baina ez aurreneko bi eleberrietan beste.

Eleberriaren harira, hitzaldi sorta ere eskainiko duzu.




Xabier Amuriza, Berrizko Andikoako baserrian, eleberria eskuetan duela.

Bai. Lehenengo abenduaren 8an, Ahotsenean aurkezpen solasaldia izango dut, 17:00etan. Ondoren, abenduaren 12an, 19:30ean Eibarko Arrate kultur elkartearen egoitzan egongo naiz, eta abenduaren 19an, 19:00etan, Larrabetzuko Angulerin.

‘Joan ziren’ zikloko hurrengo nobelan zein izango da gaia?

Hurrengo kartzelan egon ginen sasoiko kontuei buruzkoa izango da. Kartzelako bizitzak askorako ematen du, eta horren inguruan izango da. Horrekin batera, orduko Euskal Herria ere agertuko da.



Paddy Rekalde, martitzenean, Durangoko Hitz liburu-dendan.

“Arestik poesia argia egin zuen indarrik galdu barik”

‘Gabrielen lekua’ disko-liburuko testu bat idatzi du Paddy Rekaldek

> JOSEBA DERTEANO

Gabriel Arestiren gaurkotasuna aldarrikatzen duen *Gabrielen lekua* disko-liburua salgai egongo da Durangoko Azokan. Gabriel Aresti elkartearen bidez argitaratu den lanak Arestiren hitzak, Rafa Ruedak musikatu-tako poemak eta hainbat idazlek Arestirekiko duten ikuspegia batzen ditu, besteak beste. Idazle horietako bat Paddy Rekalde da (1964, Bilbo; Durangon bizi da). Denei galdera banaren inguruko hausnarketa eskatu zieten: Zer eragin izan zuen Gabriel Arestik zugan?

Rekalderen gogoetak *Arestigurea, poemetan bizi zarena* du izena. Bere ustez, indarra eta gertutasuna aurkitu zitezkeen Arestiren poesian: “Testuan bere poesiaren indarra eta gertutasuna azpimarratu ditut. Poesia argia egin zuen indarrik galdu barik, eta horrek, neurri batean, jendea poesiara erakarri zuen. Bere poesia ez zen itxia edo hermetikoa, irakurlea ez da gelditzen idazleak nondik jo gura duen ez dakiela”.

Arestik herritarrengana heldu gura zuen, eta horregatik zen bere mezua argia eta ulergarria:

“Bere poesia eta bere lana errealitate sozialarekin oso lotuta egon zen. Berak orokorrean ez zuen lore jokorik egin, poesia ez zuen zentzu estetiko huts batean ulertzen. Poesia gogoetak eragiteko tresna gisa erabili zuen, jendeari pentsarazi egin gura zion”.

Poesia ulertzeko eta erabilteko modu horretatik ere ikasi du Rekaldek: “Nik oso modu narriboan idazten dut, emozioak ahalik eta argien azaltzen saiatzen naiz. Garbitasun hori mantentzen saiatzen naiz, indar eta emoziorik galdu barik”.

A CENTRAL FORESTAL

42 urte euskal basoen zerbitzura



Smurfit Kappa
Nervión

Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!

Jasangarritasuna bermatzen dugu honako ziurtagiri hauen bitartez:



Kutxabank gordailuak interes berezian Baskepensionesera ekarpena egiteagatik

BASKEPENSIONES.
BANAKAKO
PREBISIOAN
EUSKADIKO
LIDERRA.



Iragarkia
handitutako
errealitatean
ogin da

Jaitzi gure
aplikazioa
iOS | Android



bbk³

Etorkizunari
begira dauden
planak.

BASKEPENSIONES.
e.p.s.v.

Kutxabank SA Bazkide babesle eratzaila / Kutxabank Gestion IKESK SAU Ondare Kudeatzailea.
Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32, Bilbo, IFK: A95653077, Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.
5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

Leire Bilbao | Idazlea | Ondarroa (1978)

“Umeei denetarik azaldu, eta gauza errealez egin behar zaie berba”

Gerraren gaia landu du Leire Bilbaok hurrei zuzendutako ‘Gerrak ez du izenik’ liburuan



Leire Bilbaok liburu bi ekarriko ditu Durangoko Azokara.

> MARKEL ONAINDIA

Durangon kokatzen da ‘Gerrak ez du izenik’ (Pamiela). Ondarroarra izan arren, bertan bizi da Leire Bilbao azken urteetan, eta 1937ko bonbardaketan murgildu da azken liburuan. Maite Mutuberriaren ilustrazioekin, aurtengo Etxepare saria eskuratu du. ‘Euli bat dut bihotzean’ (Elkar) ere kale-ratu du aurten.

Gerra dakarzu haur literaturara. Eurentzako moduko gaia da? Badaramatzat urte batzuk haur literatura argitaratzen, eta konturatu nintzen badaudela gai tabu batzuk. Horietako bat heriotza da, baina dagoeneko hasi da haur literaturan sartzen. Gerra apenas ikusten izan da. Ostera, telebista pizten baduzu, umeei, nahi ala ez, telebista ikusten dute. Orain Siriako gerra dago, lehenago Afganistangoa... Munduan hainbeste gerra daude... Hala ere, ez diegu

azaltzen umeei zer den gerra, zer eragiten duen eta zeintzuk diren bere ondorioak, zelan hasten diren... Fantasiaren alde nago, eta aurreko liburuetan beti fantasiara jo izan dut. Baina nire ustez, umeei denetarik azaldu, eta gauza errealez berba egin behar zaie. Gurasoekin irakurtzeko liburu bat izan daiteke. Amaiera itxaropentsua dauka, gainera.

Zer kontaktzen duzu istorioan?

Protagonista Mirentxu da, eta mutu dago aita frontera joan zenetik eta amama gerran hil zitzaionetik. Amagaz bakarrik dago. Mutu dago, ez du “gerran bizi gara” esan gura. Amamak erakutsi ziolako izenak izana dakarrela, gauza bat esaten dugunean, sentitu egiten dugula hori: tristura ez badugu izendatzen, ez dugu sentituko; gosea ez badugu izendatzen, ez dugu sentituko... Berak fantasiak beteriko barne mundu bat dauka. Eta gerran egon arren, ume bat da. Or-

duan, berak bere barne mundu alai, aberats eta fantasiosoa dauka, eta horren aldarrikapen bat ere bada. Egoerarik txarrenetan ere badago barne alaitasuna.

Zergatik kokatu duzu Durangon?

Telebistan ikusten duguna ez da hain urrutiko kontua. Orain dela ez hain aspaldi, 1937an, hemen gerra zibil bat egon zen, eta zuzen zuzenean ukitu zituen Gernika, Eibar, Otxandio eta baita Durango ere. Askotan Gernika entzuten da, baina besteek ere eduki zuten oinazea. Durangon bizitzen ia lau urte daramatzadanez, bertan kokatu gura nuen. Kurutziazako liburutegi zaharrea bonbardaketak eragindako markak daude, eta handik pasatzean begira geratu izan naiz sarritan; orain, Otxandion nago lanean...

Artxiboko lana egin duzu?

Album ilustratu bat da, labur-la-

burra. Gerediaga Elkartera jo, eta Durangoko bonbardaketako argazkiak eskatu genizkien. Orduan, grafikoki badago lan bat. Benetako argazkiak dira. Hor ikusi ahal da Santa Ana eliza, Artekalea, Goienkalea, Andra Mariko elizpea... Memoria historikoa lantzeko balio du.

‘Euli bat bihotzean’ beste abentura bat izango da, ezta?

Ez dauka bata bestearekin zirikurik. Hau fantasia hutsa da. Askok ezagutzen dugu Franz Kafkaren *Metamorfosia*, eta zelan Gregor Samsa, egun batez, loaldi aztoragarri baten ostean zomorro bihurturik iratzartu zen. Nire protagonista –Gorka, Gregorren omenez–, sekula baino lehenago jaiki da ohetik, eta lotan zegoela, euli gogaikarri bat zeukan buruan bueltaka, iluntasunean. Aztoraturik esnatu da, baina sekula baino biziago. Ispiluan begiratu duenean ez du ezer ikusi; baina bere gelako

desordena eta euli bat ikusi dituenean, zera dio: “Aiba! Euli bihurtu naiz!”. Bera pertsona bitxi gisa sentitzen da. Bere eta etxeko gainontzekoen ikuspuntutik Gorka zelan ikusten duten kontaktzen du liburuak.

Momentu honetan zer daukazu esku artean?

Nik uste dut idaztean gehien disfrutatzen duzun momentu dela ideia bat etortzen zaizunean, edo bidean zaudenean. Polita da liburu bat esku artean edukitzea, baina funanbulistaren sen-

“

Egoerarik txarrenetan ere badago barne alaitasuna”

tsazioa ematen duena sorrera da, ideia etortzen zaizunean, ez dakizunean hariari tira egingo diozun, zer etorriko den... Eta une honetan horren bila nabil.

Poesia eta haur literatura landu izan dituzu. Ez dira bi mundu?

Bai, baina azken finean literatura da. Literatura da libre sentitzen garen errepublika bakarra, ezta? Ni poesiarekin hasi nintzen, eta, bien bitartean, haur literatura egin izan dut. Momentu bakoitzak gauza desberdin bat eskatzen duela uste dut. Ez idazteko momentu batzuk ere egongo dira, edo, behintzat, ez argitaratzekoak. Bietan ibiltzen naiz gustura, baina momentuak eskatzen du bata edo bestea.

Batzuek pentsa dezakete haur literatura maila baxukoa dela...

Zein liburugaz akordatzen zara gehien? Txikitako irakurketak mugarriak dira pertsona bat irakurzale egiterako orduan. Txikiak gauzak deskubritzen duzunean, sentsazio horrek ez dauka preziorik. Nik uste dut inportantea dela umeak euskaraz hezte, eta umeek liburuekin gozatea, eurei galderak eragitea.

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango - Tel.: 946 819 951

Iker Minguez

Elorrioko
Alkartu
elkartea

Eusko Label errezetak:

- Patata-tortilla
- Entsalada

OSAGAIAK:

- Eusko Label arrautzak
- Eusko Label patatak
- Eusko Label olioa
- Eusko Label letxuga
- Eusko Label tomatea
- Kipula
- Gatza
- Ozpina



1 Hilabete honetako errezeta gozoa bezain erraza da: patata-tortilla Eusko Label produktuak erabilia. Eta horri laguntzeko, entsalada, hori ere, Eusko Label markako osagaiekin egindakoa. Produktuen kalitateak eta Iker Minguezen urtetako esperientziak (Plateruena Kafe Antzokiko sukaldaria da) markatuko dute azken emaitza.



3 Sei arrautza irabiatu, eta prest utziko ditugu gerorako. Patatak bigunduta daudenean, arrautzagaz batuko ditugu. Ondoren, gatza botako diogu. Dena bero-bero dagoen zartagin batera bota, eta sua apur bat jaitsi ondoren, alde bietatik egingo dugu. Tortilla ondo eginda gustatzen zaionak buelta bat baino gehiago eman diezaioke.



2 Patatak zuritu ostean, zatitxoak egiteko modu bi daude: karratu txikitxoetan edo patatari berari apurka zatiak kenduta. Azken hori da tradizioz Euskal Herrian egin izan dena. Hala ere, lehenengo modua azkarragoa da. Batera zein bestera, lau patata zuritu, zatitu eta olio askogaz zartaginean frijitzen utziko ditugu.



4 Azkenik, entsalada prestatuko dugu. Letxuga eta tomatea uragaz garbituko ditugu. Ondoren, osagai bi horiek eta kipula zatitu, eta plater batean nahastuko ditugu. Azkenengo urratsa bakarrik falta da: Eusko Label olio, ozpina eta gatza gehitzea. Prest dugu errezeta: patata-tortilla gozoa, eta horri laguntzeko entsalada freskoa.

Errezetaren bideoa ikusgai www.anboto.org webgunean



Goi-mailako
elikagaiak



Eusko Label produktuekin
osatutako otzararen

Urriko irabazlea;
Eñaut Ibarra

Azaroko irabazlea;
Nekane Gojenola

Leku berria estreinatuta eta arrakastan goraka dator aurten Ahotsenea gunea

Sortzaileei izena emateko aukera eman eta 48 ordura itxi zen egitaraua; Landakoren atzealdean egongo da

> MARKEK ONAINDIA

Landako Gunearen atzealdean, Montevideo etorbidearen ondoan egongo da aurten Ahotsenea, sortzaileen gunea. Trenbidea lurperatuta, Alde Zaharraz lotura zuzena edukiko du Durangoko Azokak, eta bide horretan kokatuko da Ahotsenea, Irudienearen antzera. Leku berria estreinatuko du, eta bere arrakasta goraka doala egingo du, gainera. Izan ere, sortzaileei bertan apuntatzeko aukera eman, eta 48 ordura itxi zen egitaraua. Seigarren edizioa da, eta halakorik ez da inoiz gertatu”, esan du Ahotseneako arduradun Gotzon Barandiaranek. Aurreko urteetan ere egun batzuk lehenago bete izan dute programa, baina aurtengoa berezia izan da. Irakurle eta musikazaleei norbe-

re lana erakusteko gune aproposa den seinale. “Pena da batzuk kanpoan geratu zaizkigula”, dio idazle larrabetzuarrak. Batzuei Areto Nagusian eta Plateruenean egingo diete lekua. Aurten, guztira, 80 emanaldi inguru eskainiko dira bertan.

Barandiaranek azaldu du lekuz aldatzea ona dela, Azokarentzat ona delako. Koordinazio mahaian erabaki zuten Azoka Durango osora zabaltzeko prozesuari ekitea, eta aldaketa erabaki estrategiko horren barruan ikusten du Barandiaranek. Karp berbera ipiniko dute, baina espazio gehiago edukiko dute antolaketaarako.

Ahotsenean eskainiko den guztia kontuan hartuta, Euskal Herriko sortzaileen emariak berba egin du Barandiaranek:

Kontzertuak edo liburu aurkezpenak ikustera joaten direnen garrantzia aipatu du Barandiaranek

Datorren urteari begira gogoeta egiten dabilzala aurreratu du Barandiaranek

“Sorkuntzan eten barik ari gara Euskal Herrian”. Aurreratu du era askotako aurkezpenak izango direla karpan egingo direnak, eta diskoen artean autoekoizpen ugari egongo dela. Talde askok hartu dute produkzio modu hori, eta Ahotsenea horren isla izango ei da.

Erreferentziako plaza

Ahotseneak erreferentzia irabazi du urterik urte. Gero eta musika talde eta idazle gehiago dira bertan lana aurkeztu gura dutenak. Barandiaranek esan du musika talde askok Ahotseneako kontzertu normal gisa ezartzen dutela euren agendatan. Batzuentzat beste emanaldi bat izango dela, baina askorentzat “plaza itzela” dela uste du. Bertan batzen den jende guztia-

ren aurrean jotzea aukera bat da taldeentzat.

Bestalde, kontzertuak edo liburu aurkezpenak ikustera joaten direnen garrantzia aipatu du Barandiaranek: “Hartzaileak bete egiten du Ahotsenea”. Eta hori da arrakastaren oinarri nagusia.

Gogoetarako arrazoiak

Hazten dabilen gunea da Ahotsenea, eta gertaera horri erantzuteko beharra daukate. Aurten gogoeta egiten dabilzala aurreratu du Barandiaranek, datorren urteari begira zelan jokatu aztertzeke. Ahotseneako eskaintzan musika kontzertuak aurkezpenak baino gehiago dira, eta 2014an musikarako agertoki bi eta aurkezpenetarako espazio bat egokitzea hausnartzen dabilzala. Baina, ohartarazi du hori ez dela izango posible erakunde publikoaren laguntzarik barik. Bere iritziz, gaur egungo ereduak “kolokan” dago laguntza faltagatik: “Hori sostengatu beharrean, itotzen dabilzala”. Aurten, behintzat, bizirik dago.



Iaz, Ahotsenean, Jupiter Jon taldeko kideak solasean.



Iazko edizioko emanaldi bat, Ahotsenea beteta dela.

77 emanaldi eskainiko dituzte Ahotseneako karpan

40 kontzertu eta 37 aurkezpen daude programatuta

Abenduaren 5etik 8ra bitartean sortzaileen topaleku izango da Durango, eta euren gune berezia izango da Ahotsenea. Lau egunetan ez da kontzertu eta aurkezpen emaria geldituko. Goizean 11:00ak aldera hasi eta iluntzeko 20:30era arte ordu erdiko saioak eskainiko dituzte. Guztira, 77 emanaldi daude programatuta; 40 kontzertu, eta 37 aurkezpen. Egunean, 10:30era aurreratu dute

gunearen zabaltzea. Egunaren izaera kontuan izanda, ikasleei zuzendutako ekitaldiak prestatu dituzte lehenengo. Sarrera ekitaldiaren ostean, EH Sukarra taldeak inauguratuko du Ahotsenea, 11:00etan. Eibartarrek *Uhinak* diskoa ezagutzera emateko aprobeztatuko dute hitzordua. Egun berean, Irati Jimenez idazlea eta Pirritx eta Porrotx edota Napoka Iria taldea pasako

dira oholztatik. Bingen Mendizabal, Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin eta Rafa Rueda ere egunean egongo dira, *Jainko txiki eta jostalari hura* ikuskituz.

‘Gabrielen lekua’

Hilaren 6an, Arestiren omezezko *Gabrielen lekua* lana aurkeztuko dute Andoni Egañak, Oier Guillanek, Rafa Ruedak eta Alain Urrutiak.

Musika Mursego, Esne Beltza, Ze esatek! eta Bide Ertzean taldeek ipiniko dute, besteak beste. Eta idazleen artean Peru Magdalena durangarra egongo da *Egia esan* nobelagaz.

Sarreraren ostean, EH Sukarra taldeak inauguratuko du Ahotsenea, 11:00etan

Elorrieta eta Sardui

Eñaut Elorrieta *Deserriko kantak* diskoagaz izango da abenduaren 7an, eta hori izango da eguneko ekitaldi deiga-

rrirenetako bat. Alex Sardui ere bertaratuko da, baina ez musika eskaintzera. Izan ere, bere lehenengo liburua argitaratu du aurten: *Esan eta egin*. Bestalde, eta gurera etorrita, Durangaldeko Sermond's taldeak ere edukiko du abestiak zuzenean jotzeko aukera.

Azken egunean ere hementzi sortzaile pasako dira Ahotseneatik, tartean, Koldo Izagirre *Parisen bizi naiz* liburugaz, eta Xabier Amuriza *4x4 operazioa* lanagaz.

Egitarauan sartu ezinik geratu diren sortzaileetako batzuei lekua egingo diete Plateruena Kafe Antzokian eta Areto Nagusian.

AHOTSENEAKO EGITARAUA

ABENDUAK 5, eguena

10:30 Ikastetxeentzako tartea. Aurkezpen-solasaldia.

11:00 Ikastetxeentzako tartea. EH Sukarra. 'Uhinak'. Zuzeneko.

11:30 Ikastetxeentzako tartea. Jon Arretxe. '612 euro'. Aurkezpen-solasaldia.

12:00 Malenkonía. 'Homo homini lupus'. Zuzeneko.

12:30 Maite Gurrutxaga eta Dejabu panpin laborategia. 'Habiak'. Aurkezpen-solasaldia.

13:00 Irati Jimenez. 'Arkatza eta Aiztoa'. Aurkezpen-solasaldia.

13:30 Aneika Ara. 'Aneika Ara'. Zuzeneko.

14:00 'Entzun' liburu-diskoa. Aurkezpen-solasaldia.

14:30 Hartzak blues band. 'Hartzak blues band'. Zuzeneko.

15:00 Pirritx eta Porrotx. Helduentzako 'Sentitu, pentsatu, ekin' liburua. Aurkezpen-solasaldia.

15:30 Aingeru Gorrotxategi. 'Buelbaka'. Zuzeneko.

16:00 Siroka. '3.szn'. Aurkezpen-solasaldia.

16:30 Kometa. 'Kometa'. Zuzeneko.

17:00 Mikel Markez. 'Indar bar dabil hor'. Aurkezpen-solasaldia.

17:30 Napoka Iria. 'Arnasten ikasteko berriz'. Zuzeneko.

18:00 Isa Castillo. 'Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak'. Aurkezpen-solasaldia.

18:30 Neighbor. 'Ura patrikan'. Zuzeneko.

19:00 Bingen Mendizabal, Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin eta Rafa Rueda. 'Jainko txiki eta jostalari hura'. Aurkezpen-solasaldia.

19:30 The Icer Company. 'Ur abisalen espedizioa'. Zuzeneko.

20:00 Xabi Aburruzaga. 'Geure'. Zuzeneko.

ABENDUAK 6, barikua

11:00 Joseba B. Lenoir. 'Tenpesta'. Zuzeneko.

11:30 Rafa Rueda, Andoni Egaña, Oier Guilan, Alain Urrutia. 'Gabrielen lekua' disko-liburua. Aurkezpen-solasaldia.

12:00 Mursego. 'Hiru'. Zuzeneko.

12:30 Gabi Mouesca. 'Borrokak presondegian'. Aurkezpen-solasaldia.

13:00 Amaia Iturbide. 'Kartografien eta mikrobio narratiboen artean'. Aurkezpen-solasaldia.

13:30 TikTara. 'Sorrera'. Zuzeneko.

14:00 Hutsa taldea. Aurkezpen-solasaldia.

14:30 Esne Beltza. Zuzeneko.

15:00 Ze esatek!. 'Zuzenean CD-DVD'. Aurkezpen-solasaldia.

15:30 Humus. 'Saurus'. Zuzeneko.

16:00 Skasti. 'New age'. Aurkezpen-solasaldia.

16:30 Jexuxmai Lopetegui. 'Errekan gora'. Zuzeneko.

17:00 Aritz Mutiozabal. 'Gorren dantzalekua'. Aurkezpen-solasaldia.

17:30 Keu Agirretxea. 'Behe presioaren erdigunean'. Zuzeneko.

18:00 Peru Magdalena. 'Egia esan'. Aurkezpen-solasaldia.

18:30 McOnak. 'Piraten matxinada'. Zuzeneko.

19:00 Bide Ertzean. '77'. Aurkezpen-solasaldia.

19:30 Izaki Gardenak. 'Amaieratik hasi'. Zuzeneko.

20:00 Nekez. 'Zure esku'. Zuzeneko.

ABENDUAK 7, zapatua

11:00 Begiz Begi. 'Nora joan'. Zuzeneko.

11:30 Jean Louis Davant. 'Unamunoren exilioaren sonetoak'. Aurkezpen-solasaldia.

12:00 Igelaren banda. 'Preguntatxo bat'. Zuzeneko.

12:30 Pierre Mestrot. 'Arimen ohoina'. Aurkezpen-solasaldia.

13:00 Alex Sardui. 'Esan eta egin'. Aurkezpen-solasaldia.

13:30 Antton Aranburu. 'Bizirik'. Zuzeneko.

14:00 Aingeru Epaltza. Aurkezpen-solasaldia.

14:30 Emon. 'Konfeti kolore'. Zuzeneko.

15:00 Gérard Urrutia. 'Askatasunaren egarriz'. Aurkezpen-solasaldia.

15:30 Glaukoma. 'Vol.2'. Zuzeneko.

16:00 Bullets of Misery. 'Purificatio per agone'. Aurkezpen-solasaldia.

16:30 Eratu. 'Ispilu iluna'. Zuzeneko.

17:00 Uxue Alberdi. 'Euli giro'. Aurkezpen-solasaldia.

17:30 Sermond's. 'Bidegurutzean'. Zuzeneko.

18:00 Joxemari Iturralde. 'Rasputin eta San Petesburgoko gauak'. Aurkezpen-solasaldia.

18:30 Danba. 'Hautsi'. Zuzeneko.

19:00 Mari Luz Esteban. 'Amaren heriotzak libreago egin ninduen'. Aurkezpen-solasaldia.

19:30 Eñaut Elorrieta. 'Deserriko kantak'. Zuzeneko.

20:00 Odolaren mintzoa. 'Odolaren mintzoa'. Zuzeneko.

ABENDUAK 8, domeka

11:00 Igor Arzuaga. 'Experience'. Zuzeneko.

11:30 Koldo Izagirre. 'Parisen bizi nintzen'. Aurkezpen-solasaldia.

12:00 Nabil. 'Oroimenen mosaikoa'. Zuzeneko.

12:30 Garbiñe Ubeda. 'Hobe isilik'. Aurkezpen-solasaldia.

13:00 Maite Toledo. 'Hemen'. Aurkezpen-solasaldia.

13:30 Anjel Unzu eta Txuma Murugarren. '14 kantu eta hamahiru istorio txiki'. Zuzeneko.

14:00 Arrate Mardaras. 'Pendrive'. Aurkezpen-solasaldia.

14:30 Jokin Lasa. 'Zortziko txiki bat'. Zuzeneko.

15:00 Ukan. 'Ukan'. Aurkezpen-solasaldia.

15:30 Los galerna. 'Akelarre'. Zuzeneko.

16:00 Beira. 'Dena ez denean ezer'. Aurkezpen-solasaldia.

16:30 Oreindik. 'Berdinelite'. Zuzeneko.

17:00 Xabier Amuriza. '4x4 operazioa'. Aurkezpen-solasaldia.

17:30 Kasik. 'Nora?'. Zuzeneko.

18:00 Eñaut Etxamendi. 'Idazlan bilduma 6. Kantu eta olerkiak'. Aurkezpen-solasaldia.

18:30 Niña Coyote eta Chico Tornado. Zuzeneko.

19:00 Ataramiñe liburuak. Aurkezpen-solasaldia.

19:30 Norman. 'Perkins'. Zuzeneko.

20:00 Lou Topet. 'Esnatu dira'. Zuzeneko.



JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK
Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11



Pilar Ruiz
ILEAPAINDEGIA

Kolore, mozketak edo orrazketa bonu bat oparitu eta %30 aurreztu!

Astelehenetik larunbatera zabalik.
Ordua aurrez eskatu.

Goienkale 5, behea, ezk.
946 810 396



Pirritx, Porrotx eta Marimotots Durangoko Azokan, iaz.



Saguganbaran irakurgai dauden liburuak.

Saguganbara, Azokako txiki eta handien plaza

Berbaro euskara elkarteak, transmisioa landu guran, gurasoentzako ekintzak antolatu ditu

> JONE GUENETXEA

Berbaro euskara elkarteak ia hamarkada bi daramatza Durangoko Azokan Saguganbara antolatzen. Ume eta gazteengan euskarazko irakurzaletasuna piztea dute helburu. Irakurle txikien interesa bultzatzeko ekintzak antolatu dituzte bai areto txikian, baita areto handian ere. Gainera, Azokan publiko txikia merkatu handi bilakatu dela ezin daiteke ahaztu. Beraz, hainbat liburu aurkezteko tartea ere izango dute.

Saguganbarak eskaintza zabalera prestatu du egunotarako. Oihane Barrutia Saguganbarako arduradunak azaldu duenez, "aurtengo nobedadeetako bat, transmisioa familian lantzeko aukera eskainiko dutela izango da". Beraz, haurrak helduekin

Transmisioa familian lantzeko aukera izango da aurtengo nobedadeetako bat

joan, eta tailerretan familia osoak parte hartzeko aukera izango du. Juan Cruz Igerabide idazleak eta Juan Carlos Alonso psikologoak gidatuko dituzte hitzaldiak.

Kantu-jolasa

Berbarok antolatzen dituen udalekuetara doazen gurasoen eskaririk sortu da kantu-jolasen proiektua. "Umeekin jolasteko eta kantatzeko baliabiderik ez dutela adierazi digute guraso

"Berbarok antolatzen dituen udalekuetara doazen gurasoen eskaririk sortu da kantu-jolasa"

askok, eta hutsune hori betetzera dator kantu jolasa", dio Barruetak. Urte osoan ikastaro hau eskaintzea gura dute, eta azoka proba egiteko une polita izan daitekeelakoan daude. Gainera, Durangoko Azokan kantu-liburu asko kaleratzen direla ere aprobeixatu dute horretarako.

SAGUGANBARAKO EGITARAUA

ABENDUAK 5, osteguna

12:50 Liburu erraldoia. Sari banaketa. Areto handia.

17:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Areto handia.

ABENDUAK 6, ostirala

12:30 Multimedia jokoak. 0-5 urte. Areto handia.

15:30 Xabier Olaso. 'Tximeletak airean' (Euskadi saria 2013). 7-12 urte. Areto handia.

17:00 Maite Franko ipuin kontalaria. 4-8 urte. Areto handia.

12:00 Afrika aldeko ipuin tradizionalak. 3-10 urte. (ONGD Afric / Forum). Areto handia.

11:00 Mahai jolasen txokoa. 4-8 urte. Areto txikia.

16:30 Kantu jolas tailerra. 0-3 urte, nagusiekin. Areto txikia.

18:00 Hitzaldia Juan Cruz Igerabide. 3-8 urte. Areto txikia.

ABENDUAK 7, larunbata

15:30 Eskulanak. Txapak. Sarrera.

11:00 Paxkal Burgoinen trilogia. 'Dutea'. 6-10 urte. Areto handia.

12:00 Pantxika Solorzana eta Xano. 'Elektroboom'. Haur eta gazteentzat. Areto handia.

13:00 Leire Bilbao eta Maite Mutuberria. 'Gerrak ez du izenik' (2013 Etxepare saria). 5-10 urte. Areto handia.

17:00 Libe Andueza. Ipuin kontaketa. 4-9 urte.

18:30 Bizkaiko Urtxintxa eskola. Areto handia.

11:00 'Liburu bat, mundu bat'. 0-3 urte gurasoekin. Areto txikia.

12:00 'Liburu bat, mundu bat'. 4-6 urte gurasoekin. Areto txikia.

17:00 Hitzaldia: Juan Carlos Alonso: 'Haur literaturaren eragina haurren garapenean'. Areto txikia.

ABENDUAK 8, igandea

15:30 Tailerra. Orri-markatzaileak. Sarrera.

11:00 Itziar Elias eta Iñigo Aranbarri. 3-8 urte. Areto handia.

15:00 Txotxongiloak. Afrikara bidaiak. 1-5 urte. Areto handia.

16:00 Txotxongilo tailerra. 3 urtefik gora. Areto handia.

11:00 Kantu-jolas tailerra. 0-3 urte. Areto txikia.

15:30 Familientzako tailerra. 5-10 urte helduekin. Areto handia.

17:30 Familientzako tailerra. 5-10 urte helduekin. Areto handia.

22:00 'Romeo' obra (Teatro Meridional), San Agustin kulturgunean.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA



SZENATOKIA abenduak 7

12:00-14:00 Durangoko Azoka
The True antzerki taldea + Bada Teatroa + Xentimorik Gabe antzerki taldea + Karrika Antzerki Taldea.

18:00-20:00

Silvia Manzana eta Jon Ander Alonso + Demode Quartet + Taupada antzerki taldea + Agerre Teatroa.



KOMPOTA abenduak 8

19:00 Estrenaldia!

Dxusturi Teatroa · Eneritz Artetxe

San Agustin, hirugarrenez, antzerkiaren plaza

Zapatuan maratoia egingo dute Szenatokian

> MARKEL ONAINDIA

Hirugarren urtez jarraian arte eszenikoen plaza izango da San Agustin kulturgunea. Bertan egokitu dute Szenatokia, antzerkigileen eta antzerkizaleen topalekua. Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak (EHAZE) eta San Agustinek berak antolatuta dute egunotako egitaraua, Karrika antzerki taldearen laguntzagaz. EHAZEko Itziar Eliasek ekimenaren aldeko apustua berretsi du: "Durangoko Azoka gure antzerkiaren azoka ere bada". Bera da guneko arduraduna, San Agustineko Arantza Arrazolagaz batera, eta aurtengo programaren berri eman dute.

Gainera, Szenatokiak azokan betetzen duen funtzioaz ere hausnartu dute antolatzaileek. Arrazolaren ustez, arte eszenikoen plaza eduki behar du Durangoko Azokak: "Euskal antzerki sortzaileek euren lanak erakusteko aukera izan behar dute Durangoko Azokan, jendeak aukeratu dezan".

Maratoia zapatuan

Hainbat artista pasako dira San Agustineko oholtzatik datozen

egunotan. Eta, gehienek, maratoi bidez parte hartuko dute. Zapatuan izango da antzerki maratoia, goiz eta arratsalde. Eguerdiko 12:00etan hasita, ordu laurdenero saioak eskainiko dituzte lau taldek: The Truek, Bada Teatroak, Xentimorik Gabe eta Karrikak. Karrikako durangarrek *Inungane, sustriak airean* antzeztuko dute, Plateruenak bultzatutako Zilar Astea ekimenerako prestatu zuten lana. Sorterria utzi behar izatearen ondorioz sortutako egoeren inguruan hausnartze-ko gonbita egiten du obrak.

Arratsaldeko 18:00etatik aurrera garatuko da maratoiaren bigarren zatia. Bertan beste lau taldek parte hartuko dute, Demode Quartetek, Taupadak, Agerre Teatroak eta Silvia Marzanak eta Jon Ander Alonsok osatutako bikoteak.

Txakolinaren bueltan

Saio bereziak izango dira maratoikoak, formatu laburrekoak. Trailer estiloko antzezpeneak izango dira. Baina, horrez gainera, amaitutakoan antzezleekin berba egiteko aukera edukiko



Karrika taldeak 'Inungane, sustriak airean' lanaren zati bat eskainiko du.

dute gerturatzen diren zaleek. Solasaldi horiek txakolin baten

Solasaldi horiek txakolinaren bueltan izango dira, eta pintxo bana ere jan ahalko dute

bueltan izango dira, eta pintxo bana ere jan ahalko dute. Horre-

la azaldu du Arrazolak: "Oihala zarratu, eta atzean hurrengo taldekoak lanean dauden bitartean, beste aktoreak jaitsi egiten dira, eta giro oso polita sortzen da". Eliasek formatu horren aldeko beste arrazoi bat gehitu dio: "Gainera, interesa daukanak galdetzen dizu antzezlana osorik non ikusi dezakeen, eta gertutasuna lortzen duzu publikoarekin".

Beraz, jendea erakarri eta ondo pasatzeko asmoz sustatu dute maratoia.

Alde Zaharretik gertu

Durangoko Azoka herri osora hedatzen dabil, eta, aurren, Landakotik hasita, ibilbideko azken geltokia da Szenatokia. Baina, Alde Zaharretik hurrean egoiteak ere bere abantailak dituela uste dute antolatzaileek.

SZENATOKIA GUNEKO EGITARAUA

ABENDUAK 5, eguena

10:30 Antzerkia barrutik. Bisita gidatuak ikasleentzat.

12:00 Antzerkia barrutik. Bisita gidatuak ikasleentzat

13:00 Antzerkia barrutik. Bisita gidatuak ikasleentzat

ABENDUAK 6, barikua

20:30 'Gauetan Argi' emanaldia.

Argizaiola sariaren gala.

Sarritua: William Anthony Douglas.

Sariemailea: Gerediaga Elkarteak.

Galaren gidotia eta zuzendaritza: Josu Camara.

ABENDUAK 7, zapatua

12:00 Antzerki maratoia. Ordu laurdenero antzezlana zatiak.

'Bidai Magikoa'. The True antzerki taldea.

'Traganarru'. Bada Teatroa.

'Kokakola eta Barea'. Xentimorik Gabe antzerki taldea

'Inungane, sustriak airean'. Karrika antzerki taldea.

18:00 Antzerki maratoia. Ordu laurdenero antzezlana zatiak

'Mikrouhinak'. Silvia Manzana eta Jon Ander Alonso.

'Epa!' Demode Quartet.

'Hala ere maite nauzu'. Taupada antzerki taldea.

'Zu ere On Kixote?' Agerre Teatroa.

ABENDUAK 8, domeka

17:30 'Kafie eta berba' mahai-ingurua.

Gaia: 'Ze eragin du egoera soziopolitikoak antzerkiarengan eta alderantziz'.

Hizlariak: Catriona Lexy Campbell (Eskezia), Oier Guilan eta Ixabel Etxebarria.

19:00 'Konpota'. Antzezlaren estreinaldia.

2012ko Zubi proiektuan aukeratua.

Sortzailea eta antzezlea: Eneritz Artetxe.

Taldea: Dxusturi Teatroa.

Urbanizazio bikain batean, eremu berde askorekin eta leku paregabe batean etxebizitza bat lortzeko aukera

Traña - Errota urbanizazioa (MATIENA - ABADINO)

2,3 eta 4 LOGELAKO ETXEBIZITZA LIBREAK

2 eta 3 LOGELAKO ETXEBIZITZA TASATUAK

174.600€ -tik aurrera.

Garaje eta trastelekua barne

INMOBILIARIA SAN FAUSTO

630 993 167 - 944 571 700

www.sanfausto.es

Informazio gehiago erakitzeko lanetan bertan



Asteon hainbat entsegu egin ditu Eneritz Artetxek San Agustinen. Eliza izandako aretoa obrarekin oso ondo ezkontzen dela esan du.

Emakumeak historian izan duen papera lantzen duen ‘Konpota’ antzezlana estreinatuko dute

Euskal antzerkia sustatzeko Zubi ekimenaren lehen estreinaldia da ‘Konpota’

> AMAIA UGALDE

Umorea, tragedia, eta, tartean, errezeta batzuk. *Konpota* antzezlanean, “pertsonea baten erregistro guztiak” landu ahal izan dituela azaldu du Eneritz Artetxe aktoreak. Datorren domekan, abenduaren 8an, estreinatuko dute obra San Agustin aretoan, Szenatokian. Bakarriketa bidez, emakumeak historian izan duten papera errepasatuko du Artetxek. Euskal antzerkigintza sustatzeko Zubi egitasmoaren lehen lana da.

Phillipe Gaurie antzerki maisuak eginiko obraren euskal bertsioa *Konpota*. Emakume mitiko baten ahotik egingo du berba Artetxek. Besteak beste, erlijio katolikoaren eraginez,

emakumeak gizartean duten fama txarrari buruz egingo du berba: “Errebelatu egingo da, eta ironiaz, umorez eta amorruez egingo du berba”.

Artetxek Parisen, Phillipe Gaurieren eskolan bertan ezagutu zuen maisua. *Konpotaren* aurkezpenean azaldu duenez, txundituta utzi zuen: “Oso jakintsua da, eta asko ikasi nuen berekin”. Bere testuak irakurtzen hasi zen orduan, eta *La compote de...* bakarriketako testua irakurtzerakoan, harekin zer edo zer egin behar zuela pentsatu zuen. Testua oso interesgarria dela dio: “Ez da oso ohikoa emakume bufoi baten gaineko testua idaztea, nik ez dut inoiz halakorik irakurri”.

Lehenengo biderra da Phillipe Gaurieren testu bat euskaratzen dutena. Dxturi teatroarekin eta Pablo Ibarluzea zuzendariarekin aurkeztuko du Artetxek bakarriketa “kaotikoa”. Antton Lukuk euskaratu du: “Hasieran behin-behineko itzulpen bat egin nuen nik, baina gero Artedramakoek itzultzaile aproposa Antton Luku izan zitekeela esan zidaten”. Hark “maite badut, egingo dut” erantzun zion, eta horrela egin ere.

Zubi egitasmoaren baitan

Testu dinamikoa daukan obra hau Zubi egitasmoaren lehen antzezlana da. Duela urte bi abiatu zen Zubi ekimena. Zazpi kultur eragilek euskarazko antzerkia

sustatzeko produkzio eta difusio programa sortzea erabaki zuten orduan.

Emakumeak gizartean duten fama txarrari buruz berba egiten du Artetxek antzezlanean

Lehenengo biderra da Phillipe Gaurie antzerki maisuaren testu bat euskarara itzuli dena

Eneritz Artetxek Phillipe Gaurieren testua aurkeztu zuen ekimenerako, eta hau izan da Zubitik sortu den lehen antzezlana. Datorren urterako beste deialdi bat egongo dela azaldu dute, “sentitzen dugulako lan tresna beharrezkoa dela sortu dugun hau”.

Filgi Claverie Zubiko kidea eta Itsasuko Hameka arteen fa-

brikako kideak azaldu du artista gazteak eta sorkuntza gazteak bultzatzeko asmoagaz sortu zela Zubi. Hainbat herritako antzerki programatzaileek babes ekonomiko eta obrak antzezteko antzokiak eskaintzen dituzte. Projektuan daude Artedrama, Zornotza Aretoa, San Agustin kulturgunea, Arriola antzokia, Leioako antzokia, Gernikako Astra, Nafarroa Behereko Scene de Pays, Hameka eta Dxuturi teatroa.

Antzezlanei espazioa eskaintzeko premiari buruz berba egin du Eneritz Artetxek: “Leku finkoak ditugu antzezteko, eta hori laguntza handia da; bestela zer edo zer sortu, eta ez dakizu bidea egingo duen ala ez”. Antzezlana sortzeko prozesu osoan babes handia sentitu duela adierazi du aktoreak.

Obra Durangaldean

Durangoko emanaldi honen ostean, Durangaldean datorren urtearen hasieran ikusi ahalgo da *Konpota*; Urtarrilaren 17an Zornotza Aretoan, eta otsailaren 14an Elorrioko Arriolan.



“Fruitu freskoekin egindako konpota”, Zubiko kideen berbetan

San Agustinek beste sei eragilegaz batera parte hartzen du Zubi proiektuan

Konpota barre egiteko eta gozatzeko lana dela nabarmendu du Pablo Ibarluzea zuzendariak. Mito asko apurtuko dituela esan du, eta lana prestatzen asko gozatu dutela. Ez du gehiago kontatu gura izan: “Azalpenak baino, hobe da obra bera ikustea”.

Antzezlanean produkzioan eta difusioan Zubi ekimenaren laguntza izan du antzezlana. Filgi Claverie Zubiko kidearen

berbetan, ekimenaren asmoetako bat “esperimentaziorako aukerak zabalitzea” da, eta pozik daude emaitzagaz: “Kon-

Zubiko kideen berbetan, ekimenaren asmoetako bat “esperimentaziorako aukerak zabalitzea” da

pota fruitu pasatuekin egiten da, baina ez dauka lan honekin zerikusirik; hau fruitu freskoekin eginda dago!”.

Obran beharrezkoak dabilzaten berbetan, bakarriketarako “ez du inor epel utziko”. Emakume bufoi bihurtuko da, bada, Artetxe, domeka honetan. Ordu eta hogeita minutuko bakarriketan, “dinamiko eta fresko” jardungo du San Agustinteko oholtzan.

Irakurketa eta ulermen jasoak nola lortu

Prakagorriren metodologiagaz ulermen ezari aurre egiten diote Gorka Aurrek programa hau Durangaldean eskaintzen dihardu



Irakurzaletasuna eta liburuen-ganako maitasuna gazte-gaztetatik erein, zaindu eta suspertu behar da. Atseginez gogoratzen ditut azken asteotan izan ditugunak bezalako abenduko egun euritsuak izanik, Durangoko Andra Mari elizpean ospatu zen Lehen Liburu Azokara gurasoek, mutiko nintzela, ekarri ninduten garaiko oroitzapen, irudi eta bizipenak. Liburu eta irakurzaletasuna Azokaren sus-traietan kokatzen dira eta ikuspegi horretatik ezinbestekoa da irakurzaletasuna areagotzearen aldeko oldozmen sakona egitea.

Gizakiaren osoko garapenean irakurle eraginkorra izateak duen garrantziagatik irakurketa-praktika desberdin bat ezartzeaz hezitzaileak kontzientzia-tzeko beharizan gorria dago. Irakurketak gure prestakuntza hobetzen laguntzen digu, jakintza maila jasotzen, hiztegia eta kultura maila aberastu eta hedatzen, oldozmen-bide eta irizpide propioak lantzen eta besteen irizpideak aintzat hartu eta gogoan hartzen ere.

Egungo gizartean, ohikoa den irakur-metodoa erabiliz irakurtzeko eta prozesatzeko gai garena baino askoz informazio kopuru handiagoa sortzen da. Ohiko irakur-metodoak, beti erabili eta irakatsi denak, [gaur egun metodo berdina irakasten jarraitzen

da ikastetxeetan], ez du ulermen maila urriko irakurketa erabat motel eta liburuarenganako inolako zaletasunik ez daukan irakurle bakoitzaren bakoitzaren bidea ez datza irakurtzen den bezala irakurtzen jarraitzean, era berdinean jarduten jarraitzeak ondorio berdina baitakartza.

Gaurko gazte, nerabe eta maila guztietako irakasleengan nabarmentzen den ulermenik eza,

Irakurketak gure prestakuntza hobetzen eta jakintza maila jasotzen laguntzen digu

kontzentrazio maila urria eta edukiak norberaganatzeko eragozpenek sortzen dituen arazoak atontzeko, behar beharrezkoa da irakurtzen ikasteko prozesuan sakoneko aldaketa ematea. Ez dago beste biderik. Irakurketarako trebetasun berriei jabetzeak silabadun irakurketa moduarekin erabateko etena dakar.

Ikuspegi horretatik PRAKAGORRI Ulermenezko Irakurketa Azkarra metodologiak, ikasleen ulermenik eza larriari aurre egin eta euren kontzentrazioa, motibazioa eta autoestimua nabarmen jasotzeaz gain, ikas-ohitura bikainak bar-

neratzea ekarriko die.

Egungo irakurketaren egoera oso larria da, benetan kezka-garria. Oso gutxi irakurtzen da, irakurtzen dena oso astiro irakurtzen da eta irakurtzen denaren ulermena erabat urria da. Zoritxarrez, orain hamarkada batzuk irakasten zen metodologiak bera darabilte ikastetxeek gaur egun ere, eta hori da, besteak beste, irakurketarekiko guztiz zabaldua dagoen interesik ezaren zioetariko bat.

Ikasleengan irakurketarako ohiturarik sortzea ezinezko bihurtzen da irakurketarako gria alde aurretik pizten ez bada. Gurdia idien aurretik ezin jarri daiteke.

Hezkuntza sisteman irakasten den irakur-metodoak sendietan arazo larriak eta ikasleengan frustrazio handia sortzen ditu. Hezkuntza sistemak berregituraketa sakon eta premiazko bat behar du. Ikasleak desmotibatuta daude.

Irakurketa klasikoak burmuinari ahalegin handiegia eskatzen dio berarekin lortzen den etekin [ulermena], urrirako. Ondorioz, ez da harritzekoa ikasleengan irakurketarako motibaziorik eza, zaletasunik eza eta gogogabetasuna sortzen direna ikusteak. Irakurketa klasikoak, irakurriaren buru errepikapenaren menpekotasuna, arretarik eza, eta ondorioz, irakurketarekiko ekarpenik eza dakartza. Ohiko irakurketak, bere izaeragatik, ez du irakurle izatera bultzatzen.

Irakurketa-ohiturarik ezak ikasketan ere ondorio berdina dakar, ikasleek agertzen duten irakurketa eta ulermen maila urriak ikasketakalitatean eragin erabat kaltegarria baitakar.

Txarto irakurtzen duenak, txarto ikasten du. Ikasteko baliabiderik ez izatean, ikasleek ez dute ikas prozesua metodoz eta era ordenatu batez gauzatzeko oinarrikoak diren gaitasunak garatzen.

Ikasleei, guzti horrek segurtasunik eza, motibazio ahula, norberaganako gaitasunen inguruko konfiantza gutxi eta antsietatea bezalako ekidin beharrezkoak diren egoerak gero eta nabarmenagoak izatea besterik ez dakarkie. Gabezia horiek, ikasleen adierazpen-gaitasunean eta dialektikan ere ezgaitasun guztiz kezka-garria dakarte.

PRAKAGORRI ulermenezko irakurketa azkarra metodologiak dakartzan onurak asko dira eta bakanen batzuk aipatzekotan ondorengoak aipa ditzakegu: irakurketa-abiadan lortzen

den hobekuntza ikaragarria, ulermen mailaren gehikuntza nabarmena, kontzentrazio nabarmenagoa, autoestimua errefortzua eta motibazio maila jasoak, ikaskuntza optimizatu eta irakurtzen egiten den ahalegina murriztea. Ikasleak zailtasunak gaintzen ikasten du.

Gure ikasleek, behin PRAKAGORRI ulermenezko irakurketa azkarra ikastaroa egin ondoren, 160 orrialdeko liburu bat ordu t́erdian, ulermen osoz, irakurtzeko gai izaten dira.

PRAKAGORRI-k irakasten duen irakurketa eraginkorre-aren metodologiak, irakur-gaitasuna errotik hobetu nahi duen edonork egin dezake eta berezitasunez, bederatzit urtetik gorako edozein mailatako ikasle edota jardura profesionalean informazio asko irakurri beharra izaten duten psikologo, abokatu, auditore, ekonomista, mediku eta kazetariak bezalako profesionalek.

Gure metodologiak euskeraz zein gazteleraz ematen dugu. Bestalde, gure ikas-metodoarekin ikasketakalitate asperrak eta astuna izatetik atsegin, eroso eta interesgarri izan dakiela lortzen dugu.

Prakagorri ulermenezko irakurketa azkarra metodologiak dakartzan onurak asko dira

PRAKAGORRI bere ulermenezko irakurketa azkarra metodologiarekin goi mailako irakurleak lortzeaz gainera, hiztegia gehitu, irakurzaletasuna sustatu, motibazioa areagotu eta berezitasunez, euren gaitasunenganako duten konfiantza sendotu eta eskoratzeko lortzen du. Ikasle bakoitzarekin helburu ditugunak ia kasu guztietan lortzen dira.

Eredu gisa 9 urteko PRAKAGORRI-ko ikasle baten adierazpena lekuko: "orain gutxira arte irakurtzea askoz ere zailago egiten zitzaidan oso motel irakurtzen nuelako eta irakurritako ulertzen ez nuelako ariketak egiteko denbora asko behar izaten nuen. Orain ariketak azkar egiten ditut, ikastolan azaltzen dutena hobeto ulertzen dut eta irakurtzea oso atsegin dut. Lehen ez nuen irakurtzen ulertzen ez nuelako".

PRAKAGORRI-k gaitasun intelektualen garapen eta hobekuntzarako metodologiak eta programak, egun Getxon eta Durangon eskaintzen ditu.

Gure metodologiak eta teknikak Durangaldea osatzen duten biztanle eta ikastetxe guztietako ikasle guztiei eskaini nahi diegu. Hainbat urtetako esperientziaren arabera, jakin dakigu sarritan seme-alabak ikasketen inguruan izaten dituzten eragozpen, traba eta egoera larriak garaiz atondu ez izanak ondorio latz eta batzuetan garrantzak dakartzana.

Gizabanakook ditugun ahalekin intelektualen garapen eta gaitzerik gorena bideratzeko eman beharrezkoak liratekeen urratsak emateko erabakia lehenbailehen hartzea erabat garrantzitsua da. Guk geure buruari egozten diogun gaitasuna baino askoz handiagoa dugu.

Izatez, gure gaitasunak uste ditugunak baino askoz handiagoak dira. Gaitasunok garatu eta bikainagoak izatea gure esku besterik ez dago, baina horretarako ahalegin nahiko egin beharra dago eta gehienetan gauza berriei jabetzeak eskatzen digun ahalegina egiteko ez omen da, sarritan denboraren aitzakia ezarri, asti edota gogo handirik izaten. Irakurketa, burmuinaren gimnasia da eta, ondorioz, nagusiok irakur-ezintasun ikas-prozesua optimizatzen duen jokabide positibo gisa berbalioztatu beharra daukagu.

9 urtetik aurrera, adin muga barik, PRAKAGORRI dozu zure eta zure semeen urtenbide

Irakurri 4
ALDIZ ARINAGO

Hobetu egiaz zure irakurketa-abiada eta ulermena!
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina

Harritu zaitez emaitzekin!

PRAKAGORRI
Reading skills
94 491 57 63
DURANGO
Barrenkale 20

Ikasleen eguna berreskuratu dute

Azokako gune bakoitzak ikasleei zuzendutako programazioa prestatu du abenduaren 5erako

> JONE GUENETXEA

Durangoko Azokak Ikasleen eguna berreskuratu du aurten. Abenduaren 5ean publiko orokorrarentzat eta ikasleentzat zabaldu ditu ateak Azokak. Iaz, azokaren lehenengo eguna jai eguna izanik, ezin izan zuten egun hau antolatu.

Aurten, azokako standetan bisitaldia egiteaz gainera, edukiz betetako programazioa aurkituko dute ikasleek azokako gune guztietan. Antolatzaileek azaldu dutenez, ikastetxeen aldetik erantzun "oso ona" izan dute. Aurreratu dute 40 ikastetxek baino gehiagok eman dutela izena, nahiz eta, 22rentzako lekua

Guztira, 950 gaztek parte hartuko dute ikasleen eguneko ekintzaren batean

izan. Guztira, 950 gaztek parte hartuko dute ikasleen eguneko ekintzaren batean.

Plateruenak euskal musikagintzako abesti ezagunekin osatutako kontzertua antolatu du.

Ahotsenean, ikasleek Jon Arretxe idazlearekin eta EHSukarra taldearekin izango dute solasaldia

Gainera, agertokian ipinitako pantaila erraldoi batean, autore eta abeslarien elkarrizketak ikusgai izango dituzte.

Berbaro elkarteak Ikasleen egunerako idazle eta kazetari paperean jarriko ditu ikasleak Saguganbaran. Yolanda Arrieta nobelagileak fikziozko literatura sortzeko *Egun batez idazle* tailerra jarriko du martxan, eta *Anboto* astekariak *Egun batez*



Durangoko Azokak prest dauka ikasleentzako egitaraua.

kazetari tailerra zuzenduko du.

Ahotsenean, ikasleek Jon Arretxe idazlearekin eta EH Sukarra taldearekin izango dute solasaldia.

Irudienean, aldiz, euskarazko film baten bikoizketari jarraipena egingo diote. Profesionalen

laguntzarekin, elkarrizketa bartzuk bikoizteko aukera izango dutela azaldu dute arduradunek. Eta emaitza pantaila batean ikusteko aukera izango dute.

Eszenatokian, gazteek antzezlan baten atzeko aldea eza-gutuko dute, aktore eta tekni-

kariak lan zelan egiten duten ezagutzeko.

Areto Nagusian, Miren Gonzalezek ilustrazio tailerra gidatuko du. Eta Kabi@ gunean bakoitzak bere webgunea sortzen ikasiko du, eta baita bideoak editatzen ere.

Jone Guenetxea | 'Anboto' astekariko zuzendaria

"Egun batez kazetari izateko aukera emango dugu Azokan"

Berbaro elkarteak eta 'Anboto'k 'Egun batez kazetari' tailerra eskainiko dute

> AMAIA UGALDE

Ikaslearen egunerako gazteei zuzendutako proposamen ugari dituzte Azokan. Eskaintza zabal horretan 'Anboto'k ere parte hartuko du aurten. Berbaro euskara elkarteak antolatzen duen Saguganbaran 'Egun batez kazetari' tailerra emango du Jone Guenetxea 'Anboto'ko zuzendariak.

Zelan sortu da tailer hau eskaintzeko aukera?

Oihane Barrutia Berbaroko kideak ikastaroa antolatzea pro-

posatu zigun, eta oso proiektu interesgarria iruditu zitzaigunez, baiezkoa eman genion.

Zenbat ikastetxek parte hartuko dute?

Tailer bi emango ditugunez, ikastetxe bi etorriko dira. Goizean Durangoko San Antonio Santa Rita ikastetxeko gazteak etorriko dira, eta arratsaldean Maiztegi herri eskolako txanda izango da.

Zein izango da proposatuko diezuen lan dinamika?

Tailer parte-hartzaileak izatea garrantzitsua dela argi daukagu. Beraz, bi orduko ikastaroan lehenengo zatia teorikoa izango bada ere, beste zatia praktikoa izango da. Euskal kulturgintzako sortzaile bat elkarrizketatuko dute. Prozesu guztia martxan jarriko dugu. Galdetegia osatu eta elkarrizketa egitea dugu helburu. Bi orduko ikastaro batean kazetaritzara hurbildu baino ezin daiteke egin, baina saiaturko gara denbora horri etekina ateratzen. Gainera, etorriko diren gazteak Durangaldekoak



Jone Guenetxea 'Anboto' astekariko zuzendaria.

izatea abantaila da, *Anboto* eza-gutzen dutelako.

Nor gonbidatu duzue?

Goizeko taldeak Fernando Morillo idazlea elkarrizketatuko

du. Arratsaldeko txandakoek, berriz, Esne Beltza taldeko Xabier Solanorekin izango dute solasaldia. Bideoan grabatuko dugu, eta emaitza www.anboto.org atarian ikusgai izango dira.

katerin ardoak
iñaki uribe
saltzan

Eguneko menuak - Asteburuetak menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Komentukale 23 behe, 5. esk.
48.200 Durango - Bizkaia
688 864 975

ZURE txokoa

DURANGON TXOKO ALOKAIKUA

enpresa-bilera bataio
jaunartze urtebetetze ospakizunak

info@zuretxokoa.com
www.zuretxokoa.com



Kameratoiak gazte euskaldunen sormena sustatuko du Irudienean

Topaguneak Kameratoia Durangon antolatzen duen lehen aldia da; bihar, 11:00etan jakinaraziko dituzte oinarriak, domekan sari banaketa egiteko

> JOSEBA DERTEANO

Euskaltzaleen Topaguneak Kameratoia ikus-entzunezko rallya antolatzen duen bederatzigarren aldia da aurtengoa, eta, lehenengoz egingo dute Durangaldean, abenduaren 6tik 8ra, Azokako Irudienea gunean.

Lehiaketaren helburuak gazte euskaldunen sormena bul-

tzatzea, eta, ondoren, ekoizpen artistiko hori gizarteratzea dira. Parte hartzaileei abenduaren 6an, 11:00etan, Irudienean jakinaraziko diete film laburra lantzeko gaia zein den. Aurten gune hori Durangoko zinema dagoen tokian kokatu dute. Landakotik 150 metro ingurura egongo da Irudienea. Informazio osoa ja-

sotzen duten unetik aurrera, aurretik izena eman duten 26 parte hartzaileek 48 ordu izango dituzte irudiak grabatu eta editatzeko. Abenduaren 8an, 11:00etan, entregatu beharko dute lana.

Rallyan parte hartu ahal izateko baldintzetako batzuk honako hauek dira: 18 eta 35 urte artean izatea, eta berori lantzeko

azpiegitura teknikoak norberak ipintzea. Ikus-entzunezko lanei dagokionez, 3 eta 8 minutu artean izan beharko dituzte, eta aurkezpen ekitaldian adierazitako hiru ezaugarri, gutxienez, islatu beharko ditu. Hizkuntzaren presentzia ezinbestekoa da, eta, ahozkoa zein idatzizkoa, euskara hutsean eginda egon beharko du. Webgune bat ere sortu dute edozein zalantza argitzeko: www.kameratoia.com.

Sari banaketa

Sari banaketa abenduaren 8an, 18:00etan, egingo dute Irudienean. Arte eta kultura munduko profesionalak osatutako epai-

mahaiak hiru sari banatzeko arduraz izango du: irabazleak 1.200 euro jasoko ditu, bigarrenak 900 eta hirugarrenak 600 euro.

Antolatzaileen esanetan, gazteek urtero erakusten dute irudimena eta trebetasuna badutela sorkuntzaren arloan. Urtetik urtera rallyra aurkezten dituzten sorkuntzak gero eta hobeak direla adierazi dute, bai tekniko, bai edukiari dagokionez.

Durango Azokaren harira, Kameratoia Durangaldean egingo duten lehenengo aldia izango da. Aurrekoak Gernikan, Uribe Kostan, Ermuan, Bermeon, Donostian, Elgetan, Aiaraldean eta Eibarren izan dira.

Noiz izango dira udaberriko tenporak?

Maiatzean landatu behar ditut porru-landareak?

Ilbehera da, moztuko dizut ilea?

Zenbat egun ditu otsailak: 28 edo 29?

Durangaldeko egutegia salgai
Durango Azokan eta ohiko saltokietan

anboto
komunikabideak

2014
Durangaldeko egutegia



2 euroan salgai

GABONETAKO OTZARAK

prestatzen ditugu Durangaldeko eta
Lea-Artibaiko baserriko produktuekin

www.oizegin.com



**Isasi
sagardoa**

**Mañeko
gozoak**



**Bargot barraskiloak
(salsan)**



**Lea-Artibai
kontserbak**



**Fruta eta
barazkiak**



**Uriko
eztia**



**Txori-Erota
gazta**



**Mendraga
txakolina**



**Produktu
ekologikoak**



**Olasagasti arrain
kontserbak**



**Abxarte
gazta**



**Bertoko fruitu
lehorrak**



DOHAINIK!

garraio gastuak*

* garraio gastuak dohainik bakarrik Durangaldean
eta Lea-Artibain

OIZ EGIN
on egin

baserriko produktuak on line!

94 620 36 11

info@oizegin.com





Musika eskaintza zabalaren plaza bihurtu da Plateruena, egunotan

Su Ta Gar, Urtz, Iheskide eta Arkada Social, besteak beste, Plateruenean

➤AITZIBER BASAURI

Durangoko Azokako egun hauean sortzaile eta bisitarien topaleku da Plateruena Kafe Antzokia. Kontzertu nagusien agertoki, musika aukera zabalaren erakustoki, izango da, aurtenera, antzokia. Su Ta Gar, Urtz, Kauta, Korrontzi, Iheskide eta

Arkada Social igoko dira egunotan oholtzara. Iparraldeko doinuek ere izango dute tarterik: Zeze eta Aguxtin Alkhat taldeen eskutik.

25 urteko ibilbidea bete duten honetan, *Bizirik gaude* diskoagaz dator Su Ta Gar Durangoko Azokara. Gai latz eta gogorrei

buruz baikortasunez dihardu talde eibartarrak. Horrela azaldu izan dute kideek, eta horrekin gozatzeko aukera dute gaur (abendua 5) taldearen jarraitzaileek.

Inderberrituta

Bestalde, hamar urteko etena-

ren ostean *Astiro* lanagaz dator Urtz talde gipuzkoarra. Itzulerako lehenengo kontzertua du Durangon Pasaiaiko rock bandak, Plateruena testigu dela. Hamar kanta berri batzen dituen diskoak taldeak garai batean eskaintzen zuena dakar, baina erabarrirituta.

Iparraldeko folk-rock eta elektrofolk doinuei tartea eskainiko die, zapatuan, Plateruena Kafe Antzokiak

Lau urte pasa dira, era berean, Kauta taldea oholtzatik jaitsi zenetik. Hala ere, musikari estu-estu lotuta jarraitu dute, eta, orain, indarberrituta datoz *Agerre* diskoagaz.

Iheskide eta Arkada Social Doinu gogorrek ekarriko dituzte, barikuan, Elorrioren sortutako Iheskidek eta Arrasateko Arkada Socialek; zapatuan, berriz, folk-rock eta elektrofolk doinuek eskainiko dituzte Zeze eta Aguxtin Alkhat taldeek. Domekan, ostera, Korrontzi taldearen txanda izango da.

Itziar Okarizen kartela nonahi ikusi daiteke

Virginia Woolf idazle ingelesaren 'Gela bat norberarena' liburuko esaldi bat erabili du

➤ITSASO ESTEBAN

Gerediaga Elkartek eskatuta, Itziar Okariz (1965, Donostia) artistak egin du Durangoko Azokaren 48. edizioa iragarri duen kartela. Durangoko Azokako kartela alde guztietan ikusi daiteke egunotan. Virginia Woolf idazle ingelesaren *Gela bat norberarena* liburuko esaldi batekin osaturikoa da kartelaren irudia. Bilbon eta New Yorken

Bilbon eta New Yorken lan egiten du, eta bere ekintza artistiko baterako egindako gidoia du oinarri

egiten du lan Okarizek, eta bere ekintza artistiko baterako egindako gidoia da kartelaren oinarria. Errepikapenaren bitartez, sinboloak testuingurutik atera gura ditu Okarizek: kasu honetan, hitzekin egin du ariketa hori. Woolfen esaldiagaz "emakumeei eta literaturari" egiten die erreferentzia. Nerea Mujika Gerediagako kideak dioenez, "artistaren espiritu berritzaileak Azokaren etorkizunarekin bat egiten du". Txelu Angoitia Gerediagako bazkideak azpimarratu duenez, "euskal sortzaile garrantzitsuenetarikoa da Okariz: beti abangoardian aritu dena, askoren ustez, hauslea, subertsiboa eta feminista".



Itziar Okariz Durangon, kartelaren aurkezpenean.

PLATERUENA EGITARAUA

Abenduak 5, eguna

11:00 Euskal kantagintza kontzertuan. Ikasleentzat.

23:00 Kontzertua: Su ta Gar. Sarrera 12-15 euro.

Abenduak 6, barikua

13:30 Eskozia: Euskal Herria. Ikus-entzunezkoa eta bertsolariak. Sarrera doan.

23:00 Kontzertua: Iheskide eta Arkada Social. Sarrera 10 euro.

Abenduak 7, zapatua

13:30 Kontzertua: Zeze (Elektrofolk) eta Aguxtin Alkhat (folk rock). Sarrera doan.

23:00 Kontzertua: Urtz eta Kauta. Sarrera 10-12 euro.

Abenduak 8, domeka

12:00 Musika emanaldia: Amaia Urzainki (zuzenekoak) eta Enekora (zuzenekoak)

20:00 Kontzertua: Korrontzi (sarrera doan).



Tren-geltoki zaharrean zabalik izango da 'Noctis Labyrinthus' argazki erakusketa, domekara arte

'Noctis Labyrinthus' proiektuan kide izan duten Segun Lazkano argazkilaria laguna omenduko dute Angoitiak eta Arruabarrenak

> ITSASO ESTEBAN

Noctis Labyrinthus argazki erakusketa izango da ikusgai, abenduaren 5etik 8ra, Durangoko tren-geltoki zaharrean. Udan, Elorrioko Musikaire jaialdiaren barruan erakutsi zuten *Noctis Labyrinthus* lehenengoz, "ilunari begiratzeko hiru modu" batu, eta ikusleei eskainita.

Ibilbide oparoa duten Durangaldeko hiru argazkilariren lanak biltzen ditu erakusketak: Txelu Angoitiaren *Angst*, Segun Lazkanoren *Ero* eta Jesus Mari Arruabarrenaren *Moo*.

Azaroaren 18an hil zen Segun Lazkano, Angoitiaren eta Arruabarrenaren kide eta laguna, eta hari "omenaldia" egin gura diote Durangoko Azokako erakusketa honegatz. "Asteon, erakusketa muntatzen ibili garenean ere oso nabaria egin zaigu Segunen falta", dio Angoitiak, "baina bere argazkien bitartez oso presente daukagu".

Gaur arratsalde zabalik izango da erakusketa, 17:00etatik 20:00etara; eta goiz eta arratsalde (11:00-14:00 eta 17:00-20:00) abenduaren 6tik 8ra.

Ardatz beraren ingurukoak eta elkarren osagarri dira *Noctis Labyrinthus* proiektuko Angoitiaren, Arruabarrenaren eta Lazkanoren lanok: gainbeheraz, tristuraz, indarkeriaz, zoramenaz edota heriotzaz dihardute, bakoitzak bere eran.

Erakusketa bisitatzea ikuslearentzat esperientzia berezia izatea nahi dute, eta leku bereziak aukeratu dituzte, horregatik, erakusketa ipintzeko: artistek helarazi gura duten ezinegon sentsazio hori areagotzen laguntzen duten espazioak

aukeratu dituzte. Txelu Angoiti argazkilaria durangarrak azaldu du erakusketa geltoki zaharrean egitea erabaki dutela "eraikin zaharra delako, laster bota egingo dutelako, eta eraikinari ere despedida egiteko modua" delako. Argiztapen berezia prestatu dute geltokian, eta hormak ere modu berezian atondu dituzte. Giro "hotza eta isiltasuna" igarriki ditu Durangoko tren-geltoki zaharrena bertaratzen denak.

Noctis Labyrinthus liburu bildumaren bigarren edizioaren aurkezpena ere egingo dute, gai-

nera, egunotan, Durangoko Azokan. Abenduaren 6an, 17:30ean.

Blogaren aurkezpena

Noctis Labyrinthus proiektuko argazkien proiektzioa eskainiko dute Areto Nagusiko biharko ekitaldi horretan, eta beste bi egitasmo ere aurkeztuko dituzte bertan: Interneteko www.noctisphoto.tk helbideko bloga, eta autoedizioari buruzko webgunea. Blogean, erakusketak zein bertako argazkiek iradokitzen dietenari buruz idazteko gonbita luzatuko diete idazleei.



Jaka gogoan, Durango Kirol Klubaren eskutik

Barikuan Joseba Jakaren oroimenezko lasterketa antolatuko du Durango Kirol Klubak

Joseba Jakaren oroimenezko herri lasterketa antolatuko du barikuan Durango Kirol Klubak. Aurtengoa hamaikagarren aldian izango da, eta, lehenengoz, Durango Kirol Klubak hartu du antolaketaren ardura. Ezkurdin hasi eta amaituko da lasterke-

ta, eta sei kilometroko ibilbidea diseinatu dute. Lasterketaren erdian hornidura puntu bat ipiniko dute.

Hainbat maila

Gaztetxoetatik hasi, eta Master mailetara arteko parte hartzai-

leak egongo dira bihar Ezkurdi-ko irteera puntuan. Lehenengo, 10:30ean, eskola kiroleko adina duten gaztetxoaren txanda izango da. Ondoren, 11:30ean, nagusien mailako lasterketa hasiko dute. Parte hartzaileak hiru mailatan banatuko dituzte: maila absolutua, gazteen maila (1995-1998 urte artean jaiotakoak) eta beterranoak, azken horiek adinaren arabera hiru azpi-mailatan banatuta.

Azkenik, sari banaketa egingo dute. Emakumeetan eta gizonetan lehenengo hiru sailkatuek jasoko dituzte sariak.



HEKI
HERRI KIROL KLUBA
- 656 782 552 -
heki.iurreta@gmail.com

Umeentzako eta nagusientzako erakustaldiak eta antolaketak

momotx
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006



Z E L E T A B E
Auzoa Promociones S.A.



1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak Kalitaterik oneneko materialak

- Etxebizitza guztiek honako hauek dauzkate:
 - Sukalde modernoak behar den guztiarekin.
 - Haritzeko tarima eta barruko atea. Ateen pieza metalikoak kromatuta.
 - Horma-armairuak. Barrualdea hornituta.

Erosketa aukeradun alokairua
Etxeak salgai
Alokairu librea



Iturritxo, 7 behea, eskuma • 48220 Abadiño
Tel./Fax: 944 668 956

www.zeletabe.com
zeletabe@zeletabe.com

ESKUALDEKO ARGITALPENAK

Durangaldeko idazle eta musikariek 2013. urtean liburu eta disko forman emandako sorkuntzen ale hauek eskuragarri izango dira Durangoko Azokan



4x4 operazioa

Xabier Amuriza
Argitaletxea: Lanku

Joan ziren zikloaren barruko Xabier Amurizaren laugarren liburukia da *4x4 operazioa*. Lehen liburukian, fenomeno esplika ezin baten ondorioz munduan bakarrik gelditu den narratzailea beldur da laugarren liburu honetan, hizketan ahaztu, eta ondorioz, bere buruaren kontzientzia ere galduko ote duen. Hirurogeiko hamarkadako Gogor apaiz mugimenduaren istorio kolektiboa da *4x4 operazioa* liburuaren ardatza.



Artea Durangaldean gaur

Mikel Onandia
Argitaletxea: Durangoko Udala

Durangoko Udalaren Sorkuntza Artistikora 2013ko bekagaz, Mikel Onandia arte kritika eta filosofia irakasleak argitaratu du katalogoa. Durangaldeko artista garaikideen inguruko informazioa biltzen du liburuak, eta bertako artearen ezagutza sustatzeko helburuz kaleratu dute. Bi atal bereziki osatzen dute argitalpena: lehenengoan begirada historikoa egiten du, eta sortzaile garaikideak zerrendatzen ditu, bigarrenean.

Biarnoko euskaldunak, historiaren eta hizkuntzen bidegurutzean

Philippe Etxegorri
Argitaletxea: Zingizango euskara elkarte


Eskiula eta inguruko herriek historian eta hizkuntza kontuetan duten lekua erakusten du Philippe Etxegorriren lanak. Liburuaren lehen parteak gizarteari lotutako hainbat argibide biltzen ditu: historia, demografia, auzoak, etxaldeak eta hizkuntzaren egoera. Bigarrenak, Eskiula aldeko euskara deskribatzen du gehienbat, eta zubereraren duen lekua erakusten du.



Bizkartzainaren lehenasunak

Iñaki Irasizabal
Argitaletxea: Elkar

“2011ko uda da: ETak erabakita dauka arimak behin betiko uztea, baina oraindik ez du horren berri ofizialik eman. Aldi berean, erakundearen zuzendaritzan poliziak infiltraturik eduki duen satorra agerira ateratu da, eta hura diskrezioz zaintzea erabaki du Barne Sailak, Bilboko Errekalde auzoko pisu batean. Martin Goena, garai batean militante armatua eta gaur zinpeko zaintzaile denak egingo ditu bizkartzain lanak”.



Egia esan

Peru Magdalena
Argitaletxea: Elkar

Peru Magdalena idazle durangarraren lehenengo eleberria da *Egia esan*. Aurretik, ipuinak, haurrentzako literatura eta poesia idazten jardundakoa da Peru Magdalena. Baina haurrekin badauka zerikusirik nobela honek ere: aitatasunari buruzko hainbat gogoeta biltzen ditu, eta aita-seeen harremana kontatzen du: “Arri aita desagertu zenetik hankamotz” dabilen Kimu semearen ikuspegitik kontaturikoa nobela da *Egia esan*.



Durango historian barrena

Belen Bengoetxea
Argitaletxea: Durangoko Arte eta Historia Museoa

Belen Bengoetxea irakasle eta arkeologo durangarrak koordinatutako liburua da *Durango historian barrena*. Durango eta bere inguruetak ebuluzioa atalka aztertu dute hainbat espezialistak. Industria, gizartea, eraikuntza... Bengoetxeak azaldu du adituek egindako lana herritarrengana hurreratzeko saiakera bat dela, eurei begira eginikoa. Durangoko Arte eta Historia Museoren ekimenez ondutakoa.

Gerrak ez du izenik

Leire Bilbao eta Maite Mutuberria
Argitaletxea: Pamiela

Haurrentzako albumen aurtengo Etxepare Saria jaso du *Gerrak ez du izenik* lanak. Leire Bilbaoren testua eta Maite Mutuberriaren ilustrazioak biltzen ditu liburuak. 1937ko martxoan Durangon kokaturiko istorioa da liburukia, eta Mirentxu neskatila da protagonista nagusia: amama hil ziotenetik eta aita frontera joan zitzaionetik hitz egiteari utzi dion neskatila. Argazki errealek eta marrazturiko planoak ere jasotzen ditu Pamielaren argitalpenak.



Euli bat dut bihotzean

Leire Bilbao eta Maite Gurrutxaga
Argitaletxea: Elkar

“Gorka arraro sentitzen da. Kafkaren *Metamorfosis* liburuan bezala, ezberdin jaiki da gaur. Izan ere, gauean euli bihurtu dela pentsatzen du. Asmatuko al du bere euli-bizitza berrian? Inork erreparatuko al du berarengan? Nola mugituko da? Zer pentsatuko dute bere gurasoek, arrebak, aitonak...? Errealitatearen eta fantasiaren arteko ertzean jolasten duen ipuin arin eta dibertigarri bat idatzi du Leire Bilbaok, Maite Gurrutxagaren irudi ederrekin”.




**Noctis Labyrinthus**

Txelu Angoitia, Segun Lazkano eta Jesus Mari Arruabarrena

Argitaletxea: **Noctisbooks**

Hiru lan fotografiko biltzen ditu *Noctis Labyrinthus* proiektuak, eta autoeditaturiko hiru libururen bilduma argitaratu dute ekimenaren barruan: Txelu Angoitiaren *Angst*, Jesus Mari Arruabarrenaren *Moo* eta Segun Lazkanoren *Ero* dira egitasmo honetan elkar-turikoak. Dekadentzia, beldurra, ezinegona eta eromena ageri dira Durangaldeko hiru argazkilari horien lanetan. Hiru aleak bilduma eran plazaratu dituzte.

**Tximeletrak**

Xabier Olaso

Argitaletxea: **Pamiela**

Haur literaturako Euskadi saria jaso du lan honegatik Otxandion jaiotako Xabier Olasok. Epaimahaiaren berbetan, "liburua euskal tradizioaren ezagutza sakonetik abiatu, eta berrikuntza poetiko jostarinarekin datorkigu; haurrek dituzten barne arazoak euren hizkeran jasotzeko dohainarekin". Hitz jokoak eta umorea biltzen ditu liburuak, eta guztira 68 poema biltzen ditu. Animaliei, maitasunari zein gai onirikoei buruzko olerkiak dira liburukoak.

Ludi honen bestalde

Anton Mari Aldekoa-Otalora, Xabier Boveda, Alberto Errazti

Argitaletxea: **Labayru ikastegia**


Estepan Urkiaga *Lauaxeta* poetaren lana "samurrago" emateko prestatu dute Durangaldeko hiru egileek *Ludi honen bestalde* liburua. *Lauaxeta*ren poesia-lan nagusiak (*Bide barriak*, *Arrats beran* eta *Espetxeokak*) batzen ditu liburuak, eta idazkera gaurkotuan ematen ditu olerki guztiak; gaurko idatzarauak kontuan hartuta moldatu dituzte olerkiak, eta bizkaiera arautuaren moldera ekarri dituzte.

**Hnuy illa nyha majah yahoo**

Joseba Sarrionandia

Argitaletxea: **Pamiela**

Joseba Sarrionandia Iurretako idazleak 1985. eta 1995. urteen artean idatziriko olerkiak biltzen dituen eta *Elkar* argitaletxeak 95ean kaleratu zuen *Hnuy illa nyha majah yahoo* liburuaren berrargitalpena da Durango Azokan aurkeztuko duten hau. Iurretako idazlearen hainbat zuzenketa aintzat hartu dituzte Xabier Mendiguren idazle eta editoreak zuzendu duen berrargitalpen honetako testuak gaurkotutako edizioan emateko.

**Atlantida**

Seiurte

Diskoetxea: **Baga Biga**

"Bere pop-rock alaiari seriotasun sendoa erantsi dio Berrizko Seiurte taldeak, seigarren disko honetan. Gitarrek norabide trinkoagoa dute, abestiren batean jostari, New Order bezala, Itoiz taldearen agerpenak ere baditu, Jotakie taldearen popa... Aldaketa nabari da diskoan. Badira betiko Seiurte taldearen soinuaren tankerako abestiak, baina rocka irabazle aterako da. Usain desberdina dute kantuek, ingeles kutsua darie".

**Bidegurutzean**

Sermond's

Diskoetxea: **Mauka**

Mauka diskoetxearekin atera du, aurreko *Azken bala* legez, Sermond's taldeak *Bidegurutzean* diskoa. Aurtengo udaberrian bost urte egin ditu Elorrioko laukoteak, Koldo Zubia, Jon Aramendi, Iñigo Larringan eta Egoitz Etxebarriak osatzen duten taldeak. Lehen gitarra bi zeuden lekuan bakarra dago disko honetan, eta kantei beste ukitu bat ematea bilatu dute: "Zehatzagoa eta sinpleagoa da, eta baxuak eta koruek garrantzi handiagoa daukate".

Egunsenti berri baten bila

Zain

Diskoetxea: **Baga Biga**

Berrizko Zain taldearen bigarren diskoa da *Egunsenti berri baten bila*. Melodiak, gitarrak, rock-popa eta hitzen ikuspuntu berezia eskaini dituzte maiatzean argitaraturiko disko honetan. Berrizko Lorentzo Records estudioan, Aitor Ariñorekin grabatu zuten diskoa. Unai abeslariaren berbetan: "Disko hau prestatzeak indarberritzeko lagundu digu: ilusioa berpiztu digu, *Egunsenti berri baten bilak*, borroka gehiago egin digu".

**Ataramiñe 2013**

Hainbat egile

Argitaletxea: **Ataramiñe Elkarte**

"2002an argitaratu genuen lehen bilduma hura ez zen hutsetik abiatu. 1983an Puerto de Santa Mariako *Intxaur azal baten barruan* edo SUSA argitaletxeak 1989an apailatutako *Itzalpeko ahotsak* bildumen eskutik, euskal presoen banakako sorkuntza lanak kolektiboki kalera atera izan dira. Kide, lagun eta senideok zuen letrak, zuen irudiak... behar ditugu semantika askatzaile berri bat erakitzeke. Libertatea ikusi eta deskribatzeko".



➤ Euskal Denda

Artisautza denen eskura ipiniko du Euskal Dendak domekara bitartean

Egun bakoitza material bati eskainiko diote, eta artisauek askotariko erakustaldiak egingo dituzte



➤ JOSEBA DERTEANO

“Artisautza eskura” leloagaz, Euskal Dendak 18. urtea izango du aurtengoa. Abenduaren 5etik 8ra zabalduko ditu ateak. Material eta teknika ugariarekin, artisautza tradizionala zein garaiakidea lantzen duten 52 postu egongo dira Durangoko Merkatu plazan, goiz zein arratsalde. Baina Euskal Denda salerosketarako tokia baino gehiago izaten da: ofizioa ezagutzera emateko eta balioesteko helburua duen azoka da, bisitariak artisauen mundura hurreratzen saiatzen dena, eta, oro har, artisautza ertz eta ikuspuntu askotatik munduari erakusteko ardura hartua duena.

Hori horrela izan dadin, urtero, ahal den neurrian, berritzaileak izaten saiatzen dira. Aurtengo nobedade gisa, dendako egun bakoitza material bati eskainiko

diote, zuzeneko erakustaldien bitartez. Sarrerako gunean artisautzan ohikoak diren materialen inguruko jardunaldiak egongo dira egunero.

Horrela, abenduaren 6an, sua tarteko duten ofizioen erakustaldiak eskainiko dituzte Nafarroako Forjas Brun eta beira puztua lantzen duen Gipuzkoako Argia Badago enpresek; hurrengo egunean, buztingileen lana bertatik bertara ikusteko aukera eskainiko dute Loitz Artesanía Cerámica eta Susko Zeramika enpresetako ordezkariak, eta Carmen Pérez eta Bego Rojo buztingileak; Euskal Dendako azken egunean, abenduaren 8an, egurra izango da tailerretako protagonista. Gainera, tailerretako batek egurrari benetan erabilera kuriosoa emango dio: Sondikako DPM enpresak intsektuentzako (liztorrak, tximeletak, marigo-

ringoak...) habitat artistiko eta praktikoak egiten ditu, eta biosorkuntza tailerra eskainiko du; jarduera batzuk gaztetxoei zuzendutakoak izango dira. Zur Berri enpresak, aldiz, parte hartzaileen artean hiru hilabeteko ikastaro bat zozkatuko du.

Hamar artisau berri

Euskal Dendak hamar artisau berri ekarriko ditu; aurten etorriko dira lehenengo bider. Tartean larrua lantzen duen Elorrioko Wandel artisautza tailerra etorriko da. Iaztik hona egurragaz lan egiten duten

Sondikako DPM enpresak intsektuentzako egiten dituen habitat artistikoak erakutsiko ditu

artisauen kopurua igo egin da nabarmen. Azken urteetan ordezkariak urria izan duen sektoreak, hamar bat postu izango ditu aurten. Horietako batzuk Euskal Dendan sekula parte hartu gabekoak dira: Jose Luis Anso nafarra eta Bizkaiko Zur Berri, esaterako, aurrerago aipatutako DPM enpresagaz batera.

Elorrioko Wandel eskainitakoaz gainera, beste sei erakusketak izango dira Durangaldeko ordezkariak osatuko dutenak: zeramikaren gaineko Mañariko tailer bat, Eneko Unzu bitxigile durangarra, Zornotzako Jaialdi (jantzigintza tradizionala), Durangoko Restaurarte (2001ean postu onenaren saria irabazi zuen), Iurretako Jaio Gazta eta ehungintzaren inguruko Zamua. Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaia artean 48 pos-

DATUAK

ORDUTEGIA

Irekita: Abenduaren 5etik 8ra.
Goizetan: 11:00etatik 14:30era.
Arratsaldetan: 16:30etik 21:00etara.
Eguenean: 19:00ak arte.
Barikuan: 20:00ak arte.
Inaugurazioa: Abenduaren 5ean, 12:00etan.

SALTOKIAK

Guztira: 52
Bizkaitik: 23
- Durangaldetik: 7
Gipuzkoatik: 15
Nafarroatik: 10
Arabatik: 2
Lapurditik: 1
Nafarro Beheretik: 1

SEKTOREKA

Metala: 9
Ehungintza: 9
Nekazaritza: 8
Egurra: 8
Beira eta larrua: 5
Gainerakoak: 13

- SARRERA: 1,3 euro.

tu ipiniko dituzte. Gainerakoak, Arabatik, Lapurditik eta Nafarroa Beheretik etorriko dira.

Zozketak eta lehiaketak

Artisau despistatua lehiaketa-sortu zenetik harrera ona izan du beti, eta aurten ere mantendu egingo dute. Postu batek berari ez dagokion artikulu bat erakutsiko du, eta bisitariak begirada zorroztu beharko dute berau aurkitu eta lehiaketan parte hartu ahal izateko. Horrez gainera, urtero legez, aurtengo posturik onena zein iruditu zaien bozkatzeko aukera ere izango dute bertaratzen direnek.

Euskal Dendan gaztetxoengana heltzeko ahalegin berezia egiten dute, urtero. Horrela, adibidez, Euskal Dendako lehenengo egunean papiroflexia eta gozoki tailerrak antolatuko dituzte gazteen gozamenerako.

18. EUSKAL DENDA

Euskal Herriko Artisautzaren Azoka
 Feria du Secteur Artisanal Basque
 Feria del Sector Artesanal Vasco

2013-12-5/8
 Durangoko Azoka Plazan
 www.euskaldenda.info

GURE ARTISAUTZAREKIN DUGUN ZITA!

- Erakustaldiak. Umeentzako tailerrak
- Erosketa-baleak zozketatuko ditugu, 2.000 euro guztira.
- Sorpresa asko izan ditzakezu.

Artisautza Eskura
 Ordutegia: 11:00 - 14:30 / 16:30 - 21:00
 Sarrera: 1,30 €



“Urtero herrialde bat gonbidatzea ekimen txalogarria iruditzen zait”

Eskoziako artisautzaren erakusgarri, Peter Gillies beiragilea gonbidatu dute



Peter Gillies Durangon da martitzenaz geroztik.

Euskal Dendako aurtengo herrialde gonbidatua Eskozia da. Horrela, Inverness inguruan (Highlands eskualdean) hazi eta iaiztik Glasgow hirian bizi den Peter Gillies artisauak bere lanak erakutsiko ditu Durangon.

Beira du langai, eta beirateak sortzen ditu. Beirateen zaharberitze eta kontserbazio lanetan jardun du urtetan, eta bide berriak irekitzen saiatu da, orduan ikasitako teknika eta esperientzietan oinarrituta. “Teknika tradizionalak hartu, eta horiek ikuspegi garaikide batera ekar-

tzen ahalegintzen naiz”, dio bere www.gilliesart.com webgunean.

Berak diseinatu, landu eta pintatzen ditu beirateak. Orain 10 urte hasi zen, eta tamaina askotakoak ditu; horietako asko etxeak dekoratzeko eginak dira. Bere lanetan sarritan agertzen dira zuhaitzak. Umetan, etxetik ikastetxerako joan-etorrietan bidelagun izan zituen baso eta zuhaitzek eragin sakona izan dute berarengan, eta ideia finko hori bere artelanetara ekarri du.

Durangora etortzeko aukeragaz “oso pozik” dagoela adierazi

du. Bere lanak Eskoziatik kanpora erakusten dituen lehen aldia da. Askotan egin du horregaz amets, baina beti pentsatu izan du “herrialde elurtu eta hotz batean izango zela, Suedian, esaterako”.

Euskal Dendak nazioarteko artisauari eskaintzen dien aukera goraipatu du artisau eskoziarrak: “Gustatzen zait kontzeptua. Urtero herrialde bat gonbidatzea txalogarria iruditzen zait. Eskozian ere horrelako ekimenak ikustea gustatuko litzaidake”.

Forjas Brun enpresa nafarrak jasoko du gaur Artetsu sarietako bat

350 urteko tradizioa dute burdina lantzen

2005etik hona, Arbaso elkarteak Artetsu sariak banatzen ditu artisautzaren eta euskal kulturaren sustapenean enpresek, elkarteek zein norbanakoek egindako lana aintzatesteko. Sari banaketa gaur izango da, 19:30ean, San Agustin kulturgunean.

Bost sari banatuko dituzte. Bizitza osoko dedikazioari zuzendutakoa Nafarroako Forjas Brun enpresak jasoko du. 1772. urtean Babil Brun burdina lantzen hasi zenetik hona, zortzi belaunaldik hutsik egin gabe jarraitu dute familiako tradizioa. Euskal Herriko zein hemendik kanpoko toki askotan ikusi daitezke Forjas Brunen lanak: ate eta leihoetako bandetan, eraikin eta partzela

askotako burdina barrazko itxiretan, balkoietan... Ezkutua ere askotariko apaingarriak ere sortzen dituzte. Era berean, enpresara bisita gidatuak egin dituzte gaztetxoentzako, eta herririk herri ere erakustaldiak egin ibiltzen dira.

Erakunde lagunari dagokion Artetsu saria Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen Sailak jasoko du. Hedabideen artean *Gara* nabarmenduko dute, eta euskara sustatzen egindako lanagatik Kontseilua sarituko dute. Azkenik, euskal tradizioaren eta hizkuntzaren zabalkunde egindako ahaleginagatik Bertsozale Elkarteak ere Artetsu saria jasoko du.



Forjas Bruneko langilea burdinezko irudiak lantzen. www.forjasbrun.es.

Espainiako Artisautza Sarietako bat irabazteko hautagaia da Arbaso

Artisautza eta diseinugintza bateratzeko urte hasieran antolatutako Basque Crafts jardunaldiengatik aukeratu du Arbaso Fundesarte fundazioak

Euskal Dendaren aurtengo ekitaldia aurkezteko egindako prentsaurrekoan Arbaso elkarteak presidente Bernat Vidalek jakinarazi zuenez, Fudesartek (artisautzaren berrikuntzaren arloan lan egiteko duen Espainiako fundazioa) antolatzen dituen Espainiako Artisautza Sarietako bat (enpresa pribatuen sailean) irabazteko hautagaia da Arbaso. Joan zen aste hasieran esan zieten hautagaien artean zeudela, eta oraindik sari banaketarako data zehatzik ez dagoen arren, udaberriaren izango da.

Artisautzaren sormenean eta lankidetzaren arloan bide berriak eraikitzen egindako ahaleginak egin ditu sarietarako hautagai. Urte hasieran artisauak eta diseinatzaileak elkarlanean ipini zituen Basque Crafts jardunaldiak antolatu zituzten, eta, ondoren, hilabetetako lanaren

ostean, simbiosi horretatik irtendako diseinu berritzaileak Bilbon erakutsi zituzten. Jardunaldi horiek urteroko hitzordu bihurtzeko asmoa du Arbasok. Aurten Bilboko Gabonart arti-

sautza azoka antolatzeko ardura ere Arbasok izango du, prentsaurrekoan aurreratu zuten. Abenduaren 18tik 2014ko urtarriaren 4ra izango da Bilboko azoka.



Arbasoko Bernat Vidal eta Olatz Pujana aurtengo kartelagaz.

Arbaso, elkarte eta enpresa ereduaren arteko orekaren bila

Gero eta lehiakorragoa den merkatuan, Arbaso balantzan dago elkarte eta enpresa ereduaren artean

Arbaso, Euskal Herriko artisautza sustatzeko elkarte, irabazi asmorik gabeko elkarte da. 1995. urtean sortu zuten, eta gaur egun ehun bat artisautza-tailer ditu, hainbat gremiotakoak. Sortu zenetik Bernat Vidal da bertako presidentea. Azken urteotan elkarte batek eskatzen duen militanzia kopurua jaitzi egin dela, eta apurka-apurka artisauen artean enpresa ikuspegi txertatzen ari dela dio.

“Ez da artisautzaren bakarrik gertatzen, beste sektoreetan ere gertatzen da”, dio Vidalek Arbasoren gaurkotatasuna aztertzen hasita: “Behardaba, orain arte ibili garen militanteok dugu errua. Artisautzaren egoera hobetu guran, sektorea asko profesionalizatu da, eta euren produktuak merkaturatzeko planteamendu berriak eskatzen dituzte artisauak”. Orduan

sortzen da elkarte eta enpresa ereduaren arteko talka: “Militantzia maila jaitzi egin da. Ideia eta kontzeptu jakin batzuen alde lan egin behar dela uste duen gero eta jende gutxiago dago. Elkarteak kudeaketarako ente eraginkorrak bihurtzeko ikuspegiak da nagusitzen ari dena. Behardada, norabide zuzena da, garapen baten pauso logikoa”.

Egiturak birformulatzeko hausnarketa prozesuaren aldekoa da, “baina hori ez da hasi nintzenetik hona borrokatu izan dudana eredu. Azken batean, eraginkortasuna nabardura askotatik aztertu daiteke”. Vidalek 18 urte daramatza enpresako presidente eta “nekatuta” dagoela adierazi du. Arazoa da erreleboa hartzeko prest dagoen inor ez dela agertu, momentuz. Mugarri lez Euskal Dendaren 20. aldia ipinita du.

Ikus-entzunezkoen plaza den Irudieneak kokapen berria estreinatuko du

Zugaza zinema aretoan kalitate handiagoagaz gozatu ahal izango dira aurkeztutako produkzioak

> AITZIBER BASAURI

Ikus-entzunezkoen euren gune naturalean gozatzeko aukera eskainiko du aurten Durangoko Azokako Irudieneak. Pauso berri bat eman du ikus-entzunezkoen plaza denak 48. edizio honetan, eta Zugaza zinema aretoa lekualdatuko da. Horrela kalitate handiagoagaz gozatu ahal izango dira bertan aurkeztuko diren euskarazko ikus-entzunezko produkzioak: 12 film luze, 14 film labur eta lau bideoklip eskainiko dituzte Irudienean.

Durangoko Azokatik 110 metrora du lekua, aurten, Irudieneak. Azokako arduradunek aspaldian bueltaka darabilten ideiarene onorioa ere bada lekualdaketa: "Helburua izan da Azoka herrira bertara zabaltzea, herritarrengandik hurbilago egon dadin, eta horri erantzun guran egokitu dugu Irudienean

Zugaza zinema aretoan", azaldu du Arrate Illarok, Irudieneako kudeatzaileak.

Aukera zabala

Proiektzioez gainera, mahai-inguruak, sortzaileekin solasaldiak, filmen aurkezpenak eta bestelako jarduerak eskainiko ditu Irudieneak. *Euskara jendea*, *Izan pirata*, *Road to Memphis* eta *Euskal Herriko nonbait* do-

'Help! Socorro! Lagundu! Goenkale' TV Movie-aren estreinaldia egingo dute, barikuan, Durangon

kumentalak aurkeztuko dituzte, eta, Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak *Loreak errepidean* film berriaren aurrerapena eka-



Laburbiraren eskutik 'Sormenaren bide ezkutua' eta 'Aio' film laburrak eskainiko dituzte, besteak beste, Zugazan.



Irudiari euren ahotsa ipiniko diete gaztetxoek

Cameron Diaz eta Jhonny Deep aktoreei ahots euskalduna ipintzen dieten aktoreekin egoteko aukera izango dute Euskal Herri osotik hurbildutako 100 bat gaztetxok Irudienean antolatutako bikoizketa tailerretan. Era berean, aurrean izango dute Shin Chan marrazki bizidunetako Hinawari pertsonaiari ahotsa ipintzen dion bikoiztailea. Gainera, gaztetxoek eurek ere protagonista izateko aukera

edukiko dute, irudiari euren ahotsa ipintzeko aukera edukiko dutelako.

Ikasleen egunagaz zabaldu dute Azoka. Gazteenei zuzendutako programazio zabalarekin indarberritutako eguna. Arrate Illaroren berbetan, "iaz umeengandik jasotako harrera onagaz, errepikatze gogoz geratu ginen, eta, aurten, gazteengan pentsatu dugu, erakarriko ditugulakoan".

IRUDIENEAKO EGITARAUA

Abenduak 5, eguna

10:30 Bikoizketa tailerra.

11:45 Bikoizketa tailerra.

13:00 Bikoizketa tailerra.

14:15 Bikoizketa tailerra.

15:30 Zinema euskaraz. 'Kerity ipuinen etxea'.

17:00 Zinema euskaraz. 'Chef, zorionaren errezeta'.

18:30 Zinema euskaraz. 'Kon-Tiki'.

Abenduak 6, barikua

11:00 Kameratoia. Aurkezpena.

12:00 'Euskara jendea' dokumentala. Ibaizabal/Mendebalde, Zenbat Gara elkarte (sortzaileak egongo dira).

13:30 'Euskal Herriko nonbait' dokumentala. Gontzal Fontaneda (sortzaileak egongo dira).

15:00 'Xora'. Peio Cachena DVDa. Sortzaileak egongo dira.

16:00 Mendifilm jaialdiaren aurkezpena. 'Arditan' (Egoi Markaida) eta 'The Pinnacle' (Paul Dieffley) Eskoziko filma.

18:00 'Izan pirata, jai eraldaketa sozialerako tresna' dokumentala. Sortzaileak egongo dira. Donostiako Piratak.

20:00 'Goenkale': 'Help! Socorro! Lagundu!' (TV Movie-aren estreinaldia, aktoreekin).

Abenduak 7, zapatua

11:00 Bideoklipak sortzaileekin.

12:00 Mahai-ingurua: 'Begiradaren atzeko aldean'. Moderatzailea: Goizalde Landabaso.

14:00 Laburbira (film laburrak): 'Sormenaren bide ezkutua' (Lara Izagirre); 'Hondartza' (Amaia Badiola); 'Potxuak kaleak hartzen' (Maialen Kaltzakorta/Eider Etxebeste).

15:00 'Loreak errepidean', Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño (aurrerapena/trailerra sortzaileekin).

16:00 'The Arlotes', Uraitz Klandestino eta Ruben Arlote (aurkezpena sortzaileekin).

16:30 '81 amama' dokumentala. Izaro Glez. Leregi (sortzaileak egongo dira).

18:00 'Amaren eskuak' filma. Mireia Gabilondo.

20:00 'Emak bakia' filma. Oskar Alegria.

Abenduak 8, domeka

11:00 Laburbira (film laburrak): "Euskaraz bizi" Laskorain ikastolan (Izarne Olano); 'Aio' (Asier Sustaeta); 'Marylin' (Iñaki Beraetxe); 'Abuztua' (Pello Gutierrez).

12:30 'Gu ere harrera familia gara' dokumentala. Zuondoan elkarte (sortzaileak egongo dira).

14:00 Laburbira (film laburrak): 'Irudi Mintzatuen Hiztegi Poetikoa' (Aitor Gametxo, Maider Fernandez Iriarte eta Maria Elorza); 'Cross Culture Surf' (Cross Culture Surf elkarte); 'Paterfilia' (Iñigo Kintana); 'Branka' (Mikel Zatarain); 'Sutik' (2d1).

15:30 'Road to Memphis' dokumentala. Belceblues (sortzaileak egongo dira).

18:00 Kameratoia. Sari banaketa.

Albina Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea - 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

ZARATE ELEXPE

E R A G I L E A K

la erdia
salduta!



- 27 etxebizitza, 4, 3, 2 eta logela bakarrekoak.
- Terraza handiak eta ganbarak estalkipean.
- Garaje itxi zein irekiak.

• **Udaberrian obrak martxan!** •

JARRI GUREKIN HARREMANETAN ETA EGIN ERRESERBA

Tel.: 946 816 673

www.zarateyelexpe.com

Kabia@, euskal kultura digital irekiaren habia

Kabi@ gunean hezkuntza arloko eta kultura arloko hainbat egitasmoren berri emango dute

> AMAIA UGALDE

“Euskal kultura digitala sustatzea da helburua, software eta ezagutza librean oinarrituta”. Horrela laburtu du Gorka Juliok Kabi@ gunearen helburua. Informatikaria da Julio, eta Maite Goñi irakasleagaz batera ibili da egitaraua antolatzen. Egitaraua aberatsa da bertakoa, sortzaile digitalen proposamenei zabalik izan baitute egitaraua.

Ekimenak erakusteko tarte gehienak bete direla nabarmendu du Gorka Juliok. Goizetan tailer estiloko proposamenak eskainiko ditu Kabi@k, eta arratsaldean, hitzaldi laburrek edukiko dute lekua. Julioaren berbetan, hezkuntzarekin lotutako proiektu ugari daude –lehen egunean berba izango dituztenak–, eta azpimarratu du kulturagaz zerikusia duten ekimen ugari egongo dela aurten Kabi@n: hedabideen paperari buruzko hitzaldia Marijo Deograsiasekin, Larrabetzu #Eskura agenda kulturala, Lou Topet musika taldearen mugikorrerako aplikazioa, azpigituluak.com ikusentzunezkoen munduari lotuta...

Gazteak eta sare sozialak

Teknologiaren garapenarekin batera doaz euskarazko produktu digitalak, eta horregatik, aurten, Kabi@n lekua izango dute

sare sozialei buruzko edota mugikorrerako aplikazioei buruzko ekimenek.

Sare sozialei dagokionez, Jara Live gazteentzako komunitateari buruz berba egingo du, esaterako, egunean, Jasone Osoro idazle eta ekimenaren

Koldo Bizkarguenak ‘Euskal nortasunaren eraikuntza sare sozialetan eta gazteen artean’ hitzaldia eskainiko du

Irrati edo hedabide libre bat zelan sortu daitekeen azalduko du Beñat Jimenezek barikuan

egileak. Koldo Bizkarguenak, bere aldetik, *Euskal nortasunaren eraikuntza sare sozialetan eta gazteen artean* izeneko tesia idatzi du, eta haren berri emango du abenduaren 7ko itxiera hitzaldian.

Ikasi, norberak egiteko

Edukiak eta ekinbideak partekatzea da gune honen helburu nagusia, eta horregatik softwa-



Egitaraua osatzeko proposamen ugari batu dituzte Kabi@ guneko arduradunek.

re libre bultzatuko dute Kabi@n: “Norbaitek zerbait sortu badu, hori nolabait baliatu ahal izatea nahi dugu”. Helburu horregaz, abenduaren 6an, irrati edo hedabide libre bat zelan sortu daitekeen azalduko du Beñat Jimenezek arratsaldeko saioan: “Dauden softwareekin, jakintza gutxi eduki arren, horrelako egitasmoak aurrera ateratzeko moduak badaude”.

‘Euskara’ eta ‘krisia’, tabu Iazko moduan, aurten ere tabu hitzaldiak izango dituzte Kabi@n. Hitzaldi laburretan esan ezin diren hitz bi izango dituzte: *euskara* eta *krisia*. Iaz lehenengoan egin zutenean, *euskara* zen hitz tabua. Aipatzen duenari, paperezko bolak botatzen dizkiote. “Nahita kendu nahi ditugu, hitz horiei buruz asko hitz egiten dugulako egunero”.

Euskara ez aipatzearen arrazoia argia da: “Euskaraz hitz egin nahi dugu, baina euskara aipatu beharrik gabe, naturaltasun osoz egiten dugulako”. Krisia hitzaldietatik kentzeak baikortasun ukitua emateko balioko du, Julioaren ustez: “Bada-kigu krisian gaudela, sortu egin digutela, gainera, baina ez dugu nahi krisiaren bueltan ibili, baikorki egin gura dugu berba”.

KABI@KO EGITARAUA

ABENDUAK 5, eguena - Gazte/Hezkuntza Eguna

11:00-12:00 Popcorns-a eta thimble-a erabilita sormena lantzeko tailerra (1. taldea).

12:00-13:00 Popcorns-a eta thimble-a erabilita sormena lantzeko tailerra (2. taldea).

13:00-14:00 Egindako lanen erakusketa eta sari banaketa.

16:00-18:30 Gazteekin edota hezkuntzarekin harremana duten esperientzien azoka:

- Hezkuntza-teknologia-materialgintza: beharrezkoa den elkarbizitza (Deustuko Unibertsitatea).

- Etxepare RAP (Imanol Epelde).

- Mintzatu sare sozial berriaren app-aren aurkezpena (Azkue Fundazioa).

- ‘Kolorakolore.com’ (Nerea Garmendia)

- Jara Live komunitatea (Jasone Osoro).

18:30-19:30 Itxiera hitzaldi-tailerra: 3D inprimagailuak hezkuntzan (Tumaker)

ABENDUAK 6, barikua - Garatzaile/Tekniko Eguna

11:00-12:30 Wordpress-en hastapenak. Bakoitzak bere Wordpressa instalatu.

12:30-14:00 Wordpress aurreratua. Tailer eta hitzaldiak.

16:00-18:30 Garapen edota teknikarekin harremana duten esperientzien azoka:

- Euskara ikasiz - mugikorrerako aplikazioak (Skura Mobile).

- Kontsultatu Elhuyar hiztegiak, Interneten edo zure Kindle irakurgailuan (Elhuyar).

- ‘Ahotsak.com’ (Badihardugu).

- ‘Lupulu.com’/‘Locabier.com’ (Joseba Karrikiri)

- Giza txanpona (Area Activa)

18:30-19:30 Irrati edo hedabide libre baten egitura tekniko integrala: programazioa, kudeaketa, webgunea eta mugikorrerako aplikazioa - Itxiera hitzaldi-tailerra (Beñat Jimenez, Jimakker).

ABENDUAK 7, zapatua - Sortzaile/Komunitate Eguna

11:00-12:30 Mozilla popcorn eta thimble sortzaileentzako tresnen tailerak.

12:30-14:00 Mozilla popcorn eta thimble erabilita MEME faktoria.

16:00-18:30 Tabu hitzaldiak (ezin dira ‘euskara’ eta ‘krisia’ berbak erabili:

- Nola ikusi filmak bertsio originalean, azpigituluekin: ‘Azpigituluak.com’ (Luistxo Fernandez).

- Lou Topet APP. Musika, entzutea baino gehiago denean (Lou Topet)

- Etzi (Beñat Irasuegi)

- Larrabetzu #Eskura

- Mozilla (Julen Ruiz)

- Subirautza teknologikoaren aldeko manifestu politikoaren aurkezpena (Dabid Martinez).

- Periodikua ‘ikusten’ ilustratzen gara (Marijo Deograsiak).

- Gabezietatik sortzera: Sabeletik mundura gunea (Nahia Alkorta).

- ‘Zibergara.net’ (Zibergara).

18:30-19:30 ‘Euskal nortasunaren eraikuntza sare sozialetan eta gazteen artean’ - Itxiera hitzaldi-tailerra (Koldo Bizkarguena).

ABENDUAK 8, domeka - Ekile/Ekintzaile Eguna

11:00-12:30 Ekile/Ekintzaile mahai-ingurua

12:30-14:00 Euskal ekile, ekintzaile eta enpresen arteko topaketak:

- Enpresarean, enpresa sarea euskaraz (Enpresarean).

- ‘Euskal Herriari begira’ ataria (Udalbiltza eta Gaindegia).

- Enpresa, politika eraldatzeko tresna gisa (La hormiga atomika).

- DOKA Donostian birkokatzen (Eneko Sierra).

16:00-19:30 Librea



“Zigarro elektronikoak erretzeko beste modu bat, zein erretzeari berari uztea eskaintzen du”

Durangoko Mi e-cigarro dendak zigarro elektronikoak saltzen ditu; zigarro horiek ez dute minbizia eragiten duten substantziarik, eta nikotina maila erregulatu dakieke

> JOSEBA DERTEANO

Plazerra, bizitza zati baten truke. Hori da ohiko zigarro edo tabakoak eskaintzen duena. Zigarro elektronikoak biak eskaintzen ditu: plazerra eta bizitza. Ez du substantzia kantzerigenorik eta nikotina aukerakoa da. Carmen dendako arduradunak eman ditu azalpenak.

Osasunari dagokionez, zer onura ditu zigarro elektronikoak?

Ezagutzen ditugun substantzia

kaltegarrien artean amoniakoa, polonio 210a eta arsenikoa daude, beste askoren artean. Zigarro elektronikoak kantzerigenoak diren substantzia horiek guztiak ezabatzen ditu. Zigarro elektronikoak bost osagai ditu, guztiak farmazietan erabiltzen direnak, eta bat bera ere ez da kantzerigenoa.

Zer esan dezakegu nikotinari buruz?

Nikotinak ez du minbizirik sortzen, mendekotasuna eragiten du. Zigarro elektronikoetan hautazkoa da nikotinaduna erostea. Gure gomendioa nikotinadunagaz hasi, eta apurka-apurka nikotina maila gutxitzen joatea da. Horretarako aukera eskaintzen du zigarro elektronikoak. Bestela, ez du funtzionatuko, gorputzak eskatu egingo du nikotina. Dena dela, zigarro elektronikoak ez da

erretzeari uzteko modu bat bakarrik; honen bidez erretzeari utzi dakioke? Bai, baina, azken finean, erretzeko beste modu bat da eskaintzen duena.

Bezeroak bere beharrezanetara egokitutako zigarro elektronikoak erosi dezake.

Hori da. Alde batetik, farmazietakoaren moduko zigarro elektronikoak dugu, bere ezaugarri guztiekin; egunean lau-bost zigarro erretzen duenarentzako egokia. Kantitate horretatik gora erretzen duenak iraupen luzeagorako diseinatutako bat behar du. Gainera, norbere gustuen arabera pertsonalizatu daiteke.

Erretzaileei psikologikoki ere laguntzen die.

Zigarro elektronikoak darabilenak badaki osasunari mesede egiten ari zaiona. Ohiko ziga-

rrua baino askoz kalte gutxiago eragiten du. Gainera, kea barneratu eta kanporatuta erretzeko mekanika errepikatzen denez, gorputzari eskatzen duen hori ematen zaio. Beste abantaila bat da toki itxi askotan baimenduta dagoela bere erabilera: tabernetan, jatetxeetan, auto barruan, lantokian...

Diru asko aurreztu daiteke?

Gutxi gorabehera %85 aurreztu daiteke. Egunean pakete bat erretzen duen erretzaile batek hilean 150 bat euro gastatuko

“Hilean 130 euro aurreztu daitezke elektronikoagaz; urtean 1.500 euro”

ditu. Kantitate hori zigarro elektronikoetara ekarri gero, hileko 21 eurokoa da gastua. Beraz, 130 euro aurreztu daitezke hileko. Urtean, 1.500 euro inguru.

Beste alderdi interesgarri bat zaporeena da.

Marka askotako zigarroen zaporeen baliokideak aurkitu daitezke zigarro elektronikoetan: Marlboro, Lucky, Chesterfield... Baita biltzeko tabakoa ere. Farmazietan saldutako zigarroen arrakasta txikiaren arrazoietako bat zen zapore bakarra zegoela aukeran. Guk Hangsen enpresagaz egiten dugu lan. Zigarro elektronikoetako likidoa ekoizten duen munduko enpresarik nagusia da, eta kalitateari eta zaporeei dagokionez, erabateko bermea eskaintzen du. Gainera, nikotinagaz edo nikotinarik gabe dastatu daiteke zaporea. Horrez gainera, beste 100 zaporetik

gora daude aukeran: marrubia, menda, kafea, banilla... Eta gura den nikotina mailagaz. Gura duenak mota biak txandakatu ditzake; orain marrubi zaporeduna erre dezake, eta handik denbora batera, likidoa aldatu, eta, esaterako, Marlboro zaporea probatu. Harritu gaituen alderdi bat da, sekula erre gabekoek ere interesa erakutsi dutela zaporeekiko. Aromatikoa izan daiteke, eta gura duzun zaporea erre dezakezu, norbere buruari zein ondokoei batere kalterik eragin gabe.

Bateriak eta likidoak zenbat irauten dute?

Bateria bat 300-500 bider birgargatu daiteke. Asko irauten du. Berri bat erostea ere ez da garestia. Gamarik altukoenez 20 bat euro balio dute. Dispositiboari dagokionez (klaromizagailua) gureak aldagarriak dira, ez dago berririk erosi beharrik. Hiru-lau asterik behin aldatuta nahikoa da, eta 3,5 euro balio du. Beraz, merkea da. 'Pack' osoa 30 euro inguruan eskuratu daiteke. Gainera, bezeroak 'pack' hori bere gustura osatu dezake.

Beste herrialde batzuetan harriera ona izan du?

Bai, Italian eta Frantzian, esaterako. Diotenez, Frantzian erretzaileen %50ak zigarro elektronikoak darabil. Frantzian tasak hemen baino altuagoak dira.

Eszeptikoak konbentzitzeko azken mezu bat?

Etorri eta dohainik probatu ditzatela. Harrituta geratuko dira. Kanpotik entzun dezaketenez ez daitezela gehiegi fidatu; izan ere, tabako industriek indar handia dute. Nire gomendioa da egin diezaiotela kasu zigarro elektronikoaren erabiltzaileek diotenari.

mi e-cigarro electrónico

C/ Montevideo, 4
48200 - Durango
Tfno. 946 570 166
durango@mie-cigarro.com

<https://www.facebook.com/miecigarrodurango>

Irurtzungo Orritz-Iskidi eta Kriskitin Durangon Folken

Nafarrek pertsonaia mitologikoak ekarriko dituzte, eta Kriskitinek Nafarroara folklore bidaia egingo du, abenduaren 6an, gunetan eta kalean



Kriskitin dantza taldearen irudia.

> JONE GUENETXEA

Durangoko Kriskitin dantza taldeak udagoieneko Durangon Folk jaialdia antolatuko du Durangoko Azokan. Orain arteko edizioetan beste lurralde batzuetako dantza taldeak gonbidatu dituzte: Galizia, Herrialde Katalanak, Landak, Gaztela, Asturias, Aragoi, Andaluzia eta abar. Kriskitin dantza taldeko arduradunek azaldu dutenez, aurtentzen, hurbilago geratu dira. "Herri berekoak ditugun nafarrak gonbidatu ditugu". Irurtzungo Orritz-Iskidi taldea izango da,

Kriskitinekin batera, abenduaren 6an, 12:00etatik 14:30era, Durangoko kale eta gunetan zehar

Kriskitin dantza taldeak azaldu duenez, talde bien lokarria euskara eta folklorea dira

dantza giroa zabalduko duena. Durangoko taldeak dioenez, talde bien lokarriak euskara eta folklorea dira.

Irurtzungo taldekoak pertsonaia mitologikoekin etorriko dira Durangora. Bertan, basajaun, Mari eta Otsoko ikusteko aukera izango da, beraz. Joaldunak eta Ttunturrak ere ikusgai izango dira.

Kriskitinek ere Nafarroara joko du, iparraldetik hegoaldera, folklorea bitartez bidaiatzeko. Otsagabiko eta Cortesko dantzak dantzatuko dituztela aurreratu dute. Erraldoiak ere entrenatuko dituzte, eta dultzaina hotsa gehituko diote ikuskitzari.

'Txistua XXI. mendean' Silbobberriren eskutik, abenduaren 6an

Txistu kontzertuaren helburua "errepertorio gaurkotu eta garaikidea osatzea" dela azaldu dute

Silbobberrri Txistu Elkartek Durangoko Azokaren egunetan txistu kontzertua antolatu ohi du. *Txistua XXI. mendean* izenburuagaz, errepertorio gaurkotu eta garaikidea eskaintzea dutela helburu adierazi dute Silbobberrriko kideek. Abenduaren 6an eskainiko dute txistu kontzertua, San Frantzisko elizan, 20:00etan.

Bost obra

Kontzertuan bost obra interpretatuko dituzte. Lan batzuk txistu bakarlarriak jotzeko dira, beste batzuk bandan joko dituzte, eta baita multiperkusioagaz ere.

Carlos Ibarren *Dantza, zarabanda eta toccata* lanagaz txistu bakarlarriak zabalduko du egitaraua. Rodrigo A. de Santiagoren *Sonata en Fa*, Francisco Ibañezen *Inguruak*, Iñaki Estradaren *Hiru obra* eta David Cantalejoren *Contacto* lanak izango dira entzungai.

Kontzertuaren antolatzaileek jakitera eman dutenez, sei txistulari elkartuko dira kontzertuan: Aitor Amilibia, Sergio Torices, Iñaki Martin, Fernando Aurrekoetxea, Jon Ansorena eta Maite Sagastizabal. Perkusioan, berriz, Elur Arrieta arituko da.



Silbobberrri antolatutako txistu kontzertua.



Durangaldeko artisten obrak Durangoko Museoan ikusgai

Durangaldeko artisten obren hautaketa osatu du Mikel Onandiak erakusketa honetarako

Artea Durangaldean gaur liburua kaleratu berri du Mikel Onandia arte historialari durangarrak. Durangoko Udalaren sorkuntza bekaren bidez, Durangaldeko 44 artistaz osatutako katalogoa sortu du Onandiak (azokan salgai). Lan horretarako bildutako informazioa baliatuta izen bereko erakusketa prestatu du Durangoko Arte eta Historia

Museoan egunotarako. Victor Arrizabalaga, Imanol Larrinaga, Norber Hernández, Damaris Pan, Karlos Martínez B., Claudio Lorenzo, Jaime Vicario, Esperanza Zabala, Txelu Angoitia, Jesus Maria Arruabarrena, Segun Lazkano, Elena Solatxi, Jon Roman, Safet Bijelic, Fernando de Vicente, eta Peru Magdalena eta Gotzon Garaizabal artisten

obren hautaketa bat egin du arte historialariak.

Onandiaren ustez, lan honen ekarpen nagusia Durango eta inguruetako sortzaile garaikideei ikusgaitasuna ematea da, "bakoitzak bere ibilbidea duen arren, proiektu unitario honetan artista guzti horiek batzea". Liburuak denetarikoa arte adierazpenak biltzen ditu. "Liburuak frogatzen du Durangaldeko sorkuntzaren aniztasuna: belaunaldi eta disziplina ugariatako jendea sartu dut: pintura figuratibo eta tradizionalenetik abstrakzioaraino dauden guztiak: eskulturgintza, instalazioak, arte kontzeptuala, argazkigintza, zinemagintza, ilustrazioa..."

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK
Salmenta eta konponketa

HONDA STIHL SAME pasquall VIKING CARON BCS

Berriozabalbeitia, 14 - Elorrio - Tel./Faxa: 946 231 803 - juanberistain@telefonica.net • www.juanberistain.com

“Altxor handia duzue Berrizko baserrietan”

Gerediagako postuan egongo da salgai ‘Berrizko baserriak’ liburua; lau urtean egindako toponimia ikerketaren emaitza da, eta asteon aurkeztu dute

> AMAIA UGALDE

Kofradiaka dago banatuta, eta guztira 301 baserri eta ermiten izenak ageri dira *Berrizko baserriak* liburuan. Baserrien argazkiak, ezaugarri arkitektonikoak eta baserri izenen nondik norakoak batu dituzte bertan. Egileen berbetan, urteak joan eta urteak etorri, oso ondo mantendu dira Berrizko baserriak; euren izenak mantentzea eta iraunaraztea da lanaren helburuetako bat. Kultur Etxean egin dute liburuaren aurkezpena.

Baserrien fitxetan argazkiak, ahoz erabiltzen diren izenak, idatzizko izen formalak eta baserrien deskribapenak sartu dituzte. Jon Ander Ramos historialariak lau urtean egindako toponimia azterketa da lanaren ardatza, eta Ana Isabel Ugalde artearen historian doktoreak eta Mikel Gorrotxategi euskaltzainak parte hartu dute liburuan.

Koloretako argazkiak, zuri-beltzekoak... Irakurtzeko eta

ikusteko da liburua, oso bisuala baita. XVI. mendean eraikitako baserriak, gaur egun desagertuta dauden etxeak, berriztuta daudenak... Denetarik ikus daiteke lan mardulean. Jon Ander Ramosek nabarmendu duenez, berriztarrek emandako laguntza ezinbestekoa izan da lana osatzeko. Izan ere, Ramos baserriak ibili da informazio bila, artxiboetan dokumentazio lana egiteaz gainera.

Berriztarren laguntza ezinbestekoa izan da; Ramos baserriak ibili da informazio bila

Idatzizko formak

Izenak batuta, “idatziz erabili beharreko izen zahar eta jatorrizkoak” zeintzuk diren definitu dituzte toponimia lanagaz.

Mikel Gorrotxategiren berbetan, “batzuei arraro egingo zaie *Bisko* beharrean *Beaskoa* ikustea, adibidez”. Ahozko formak ahozkorako guztiz egokiak direla nabarmendu du euskaltzainak. Izenen idatzizko forma zehaztea, euskararen normalizazioan egin beharreko pausoa dela nabarmendu dute. Orland Isoird alkateak aurkezpenean esan duenez, “lan hau gerora etorriko diren ikerketen oinarri, eta ondorengo ezagutzaren iturri izango da”.

Balio arkitektoniko

Lana egiterakoan baserrien balio arkitektonikoak jabetu dira liburuaren egileak. Hori azpimarratu du Ana Isabel Ugaldek: “Nik baserrietako fatxada nagusien deskribapenak baino ez ditut egin, baina hori bera nahikoa da herriaren dagoen altxorra ikusteko; ez dut uste Euskal Herrian horrelako altxorra duten herri asko egongo denik”.



Gorrotxategi, Ugalde eta Ramos liburuaren aurkezpenean.



XV. mendeko baserrietatik XX. mendekoetara, “obra bikainak” egin direla nabarmendu du Ugaldek, eta berriztutako baserriak “oso ondo” berriztuta daudela, gainera.

Berrizen eta Azokan salgai Hamar euroan eros daiteke liburua Berrizko udaletxean, liburu-dendan eta estankotan. Durangoko Azokan, Gerediagaren postuan egongo da eskuragarri.

“Olakueta izena tren geltokiagatik zabaldu zen”

Geltoki ondoan zegoen jauregi batetik dator Olakueta auzoaren izena

Hogeita hamar bat berriztar gerturatu ziren astelehenean Kultur Etxera, *Berrizko baserriak* liburuaren aurkezpena. Askok liburua besapean bueltatu ziren etxera, eta batek edo bestek egileei sinadura ere eskatu zien.

Herriko leku izenen gainean bitxikeria eta pasadizo ugari daude. Horietako bat da Olakueta. Gaur egun herriguneko auzoa dena, industria eta trenbidearen etorreragaz zabaldu zen, eta horrek badauka

bere izenean zerikusirik.

Trena etorri zenean, Deustun (gaur egun Bilboko auzoa) bazegoen Berriz izeneko auzo bat, eta bertan zegoen izen bereko geltokia. Bi geltokik izen bera izan ezin zuten, trenbidetik gertu zegoen Olakueta jauregia zenaren izena erabili zuten Berrizko geltokirako; Berriz-Olakueta zen, beraz, geltokiaren izena: “Geltokiari Berriz-Okango deitu baliote, ziurrenik inguruari Okango deituko genion orain”, azaldu

du Mikel Gorrotxategik.

Teknokrata baten erabakia izan zen, hortaz, gaur egungo auzoaren izena finkatuko zuena. “Deustuko auzo bati herri bati baino garrantzi handiagoa ematea erabaki zuen norbaitek”.

Kofradien mugak

Aurkezpenean herritar batek Olakueta kofradia ote den galdetu zuen, eta ez da kofradia, Sallobente-Mendibil kofradia barruko auzoa baino. Olakueta

jauregia zegoen leku horretan –gaur egun biribilgunea dagoen lekutik oso gertu– lau kofradiaren mugak daude: Sallobente-Mendibil, Eitua, Okango eta Murgoitio. Topo-

niomia ikerketan, Jon Ander Ramosek, kofradien mugak zehaztea lortu du.

Ramosen berbetan, “normalean errekek edo muinoek banatzen dituzte kofradiak”, baina beste batzuetan, ondo-ondoan dauden baserriak bi kofradiatakoak izatea ere gertatu da. Murgoitio Solaburu baserria eta Beheko errotaren kasua da hori, adibidez. Nahiz eta oso gertu egon, XVIII. mendeko polizia erroldetan bata Murgoitio barruan agertzen da, eta bestea Sallobente-Mendibilen; “ziurrenik, orduan, batetik bestera joateko bidea ez zelako hain samurra izango”.

Toponomia ikerketak eman dituen emaitzak kontuan hartuta, kofradietako mapekin panelak ipini ditu, aurten, Berrizko Udalak.

Bi geltokik izen bera izan ezin zuten, trenbidetik gertu zegoen Olakueta jauregiaren izena erabili zuten tren-geltokirako

Batzuetan, ondo-ondoan dauden baserriak bi kofradiatakoak izatea gertatu da

2013ko irabazlea

ALBERDI

HARATEGIA

DURANGO

Askatasun etorbidea, 1 - Durango Tel.: 946 817 658

Bertako okela • Aurretiaz prestatutako janariak

Xabier Olaso | Otxandio, 1964 | Idazlea

“Poesia idazteak badauka xarma berezia niretzat”

Abenduaren 6an, 15:30ean, Saguganbaran aurkeztuko du Olasok ‘Tximeletrak’



Bigarren biderrez jaso du Olasok, aurten, haur eta gazte literaturako Euskadi saria.

> ITSASO ESTEBAN

Hasteko, zorionak Euskadi sariagatik! Zer garrantzi izan du zuretzat haur eta gazte saileko literatur saria jaso izanak?

2005. urtean irabazi nuen lehenengo Euskadi saria haur eta gazte literaturaren esparruan, *Pupuan trapua* poema-liburuarekin. Halakoak bizitzan behin

baino gertatzen ez zirela pentsatzen nuen, eta, orain, berriro ere jasotzean, poz handia sentitu dut. Bultzada handia da; batetik, *Tximeletrak* lanak, ziur aski, oihartzun handiagoa izango du. Baina, batez ere, norberarentzat da garrantzitsua, idazten eta gauza berriak sortzen jarraitzeko adorea ematen dizulako.

‘Tximeletrak’ liburuagatik eman dizute saria. Zer dauka liburu horrek zuretzat berezi?

Liburu jostagarria da, poema askok olgetarako modua ematen dute, onomatopeiak, hitz-jokoak, erritmoa, errima, musikaltasuna eta bestelako bitartekoekin. Ozen irakurtzeko moduko poemak direla esango nuke.

“

Ipuin biribil bat idaztea eta hari muturrak ondo lotzea erronka handia da”

Liburuan euskal literatur tradizioa eta berrikuntza uztartzen direla goraipatu zuen epaimahaiak. Zer dauka tradizioetik eta zer berrikuntzatik?

Euskarak berez dituen haur hizkuntzaren baliabideak ditu tradizioetik, eta, bestalde, poema batzuen egikera berrikuntzatik. Poema batzuen formari bereziki erreparatu diot. Bada eskuin-ekker irakurri behar den poemarik, *Karramarroarena*, kasu. Bada, bestalde, behetik gora irakurtzen den poema bat, *Mendian gora* izenburuduna. Bada, atalka, goitik behera eta behetik gora irakurtzen den beste

poema bat, *Zaldiko-maldikoa* deitzen da, eta zaldiko-maldikoa gorabehera hori jaso nahi du poemaren formak. Era berezi samarrak dituzten bestelako batzuk ere badira.

Helduentzako poesiak eta haurrentzako poesiak, ipuinak eta igarkizunak idatzi dituzu zure ibilbidean. Genero bakoitzaren zer ezaugarri duzu maiteen?

Poesia oso gustuko dut, berdin helduentzat zein haurrentzat idatzita egon. Erronka handia da hizkuntza ekonomia erabilita al bait gehien komunikatzea, zehaztasun punttu hori topatzea, zirrara hori lortzen saiatzea. Poesia idazteak badauka xarma berezia. Igarkizunek, bestalde, badaukate asko poesiatik, erritmoa, errima, zehatz esatea baino iradokitzea... Bestalde, ipuinak idaztea ere ariketa ederra da, bestelako egokiera eskatzen du. Ipuin biribil bat idaztea eta hari muturrak ondo lotzea erronka handia da. Bukaeran, egikeran asmatzen baduzu, sekulako poza ematen dizu txukun bukatuta ikusteak, ilustrazioek biziturik.

Asteon ‘Auskalo!’ liburuaren berrargitalpena aurkeztu duzu. Durangoko Azokan ere aurkeztuko duzu?

Bai, halaxe da. *Auskalo (Igarkizun eta aho-korapiloak)* liburua 2001. urtean plazaratu zen lehenengo aldiz, Pamiela argitaletxearen eskutik. Harrera oso ona izan zuen, eta aspalditxoan zegoen agorturik. Ale bat bera ere ez. Orain, *Klisis-klisi* bilduma dotorean berrargitaratu dute, Pamiela argitaletxea eta Galtzagorri elkarte


izan dira eragile nagusiak. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak babestuta irten da. Liburu honen aurkezpena abenduaren 2an egin genuen, Donostian, eta, beraz, ez da bigarren aurkezpenik izango Durangon. Hala ere, salgai izango da Azokako Pamiela argitaletxearen saltokian.

Abenduaren 6an zatoz Durangoko Azokara, ezta?

Bai, urtero egiten dut bisita; batzuetan, plazaratzen dudana liburuaren batek aginduta, eta, beste batzuetan, nire kontura. Aurten ere bertan izango naiz egun batean, behintzat, Pamielako saltokian nahi duenari liburuak sinatzen, eta Saguganbara haur-esparruan haurrei zuzenduriko jarduerak egiten.

Zer ari zara orain idazten?

Haurrentzako ipuin-liburu bat daukat labean sartuta. Ziur aski, otsailerako plazan izango da. *Txuntxurrun berdeko animalien kontakizunak* deituko da, eta, bistan denez, animaliak izango dira ipuinetako protagonista nagusiak. Beste hainbat gauza ere baditut esku artean.



Tokiko garapen ekonomikoan hainbat ikerketa egiten dituzte EKAI Centerren.

Adrian Zelaia | EKAI Center ekonomia aholkularitzako lehendakaria

“Ekonomian aurrerakoia jokatu beharko genuke”

Azokako lau egunetan egingo dituzte aurkezpenak EKAI Center ekonomia aholkularitzako kideek; Adrian Zelaia durangarra ere bertan izango da

> AMAIA UGALDE

Aldundietako eta Jaurlaritzako kideekin batera, erakundeekin dituzuen programa batzuk aurkeztuko dituzue. Zein ekarpen nabarmenduko zenuke?

Gai ugari daude. Zapatuan tokiko garapenari buruz egingo dugu berba, eta hori estrategikoa da. Bariakoa, Gipuzkoako politika sektorialena ere garrantzitsua izan daiteke aurrerantzean.

Tokiko ekonomia landuko duzue zapatuan, euskararen ikuspuntutik. Zer landuko duzue?

Ekonomia ez da gauza abstraktu bat; denon artean egiten dugu, eta pertsonentzat garrantzitsuak diren gaiak garrantzitsuak dira ekonomiarentzat ere. Euskararen kasuan, euskara nahiko baztertuta egon da enpresa munduan, desoreka historiko bat dago. Gizarteko beste alorretan baino aurrerapauso gutxiago egin ditu euskarak enpresa arloan, eta orain dela gutxi hasi da lantzen. Tokiko enpresetan edota udaletan euskara kontuan zelan hartu edukiko dugu berbagai.

Testuinguru ekonomikoa dela-eta, ekonomia politiketan bide berriak zabaltzen dabilta Euskal Herrian?

Nik ezetz esango nuke. Nik usate dut, oro har, Euskal Herrian babeserako jarrera bat hartu dugula. Murrizketekin jokaten ari gara, aurrekontu politikekin, baina gure ustez, askoz jarrera erasotzaileagoa, aurrerakoia hartu beharko genuke, gure egitura ekonomikoa berrindartzeko, hezkuntzaren aldetik eta berdin ekipamendu teknologikoaren aldetik ere.

ERROTARITXUENA

DURANGO

HURRENGO ENTREGA!!

Etxebizitza hau zurea izan daiteke

Arriskurik gabe
eta baldintzarik onenetan



SabadellGuipuzcoano



Bisita ezazu gure
etxebizitza pilotoa

Finantzaketa %100 arte
Baldintzarik onenetan
eta idatziz bermatuak

2 log. 204.000€-tik aurrera + BEZa
3 log. 268.000€-tik aurrera + BEZa

Etorri BIDEOA IKUSTERA gure web gunera



www.sukia.com
www.solvía.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

Philippe Etxegorri | Angulema, 1971 | Idazlea

“Liburua idazten duela 5-6 urte hasi nintzen; datuak biltzen askoz lehenago”

‘Biarnoko euskaldunak, historiaren eta hizkuntzen bidegurutzean’ liburua aurkeztuko du Berrizen bizi den Phillipe Etxegorri, zapatuan, Azokan

> ITSASO ESTEBAN

Noiz eta zelan sortu zitzaizun liburu hau idazteko ideia? Duela 5-6 urte hasi nintzen liburua idazten, baina datuak eta argibideak biltzeko lanean askoz lehenago hasi nintzen: duela 10 urte inguru. Baina aurretik bannuen datu-base pertsonala.

Zer datu-base mota?

Osabak eta biok elkarri euskaraz idazten genizkion gutunak. Bera izan zen lehenengo iturria. Biarnoko mugan bizi zen bera, eta ni Frantzia iparraldean nengoen ikasten. Hamarkada batez idatzi genion elkarri, osaba hil zen arte. Oso euskara aberatsa zeukan, eta, gure lurraldean euskara galtzekotan zela ohar-turik, erabaki nuen datu linguistiko horiekin lanean hastea.

Biarnoko euskararen gain-beherak eraman zintuen, beraz, ikerketa sakondu eta liburua idaztera?

Bai. Hala ere, euskara kili-kolo dago Iparralde osoan, eta leku askotan modu larrian egin du behera. Biarno Euskal Herri ofizialaren parte ez denez, are zailagoa da euskararen egoera.

Zer moduzko harrera izan du liburuak?

Harrera ona eduki du. Irakurri dutenen berbetan, aski berritzailea baita. Tokian tokiko datuak eman ditut, eta datu horiek egoera orokorarekin lotu ditut. Historia txikia historia orokorarekin lotu dut. Bi parte dauzka liburuak: historikoa eta soziolinguistikoa batetik, eta hizkuntzei dagokiena, bestetik.

Zein sasoi historiko barne hartzen du liburuak?

Eskiula XIV. mendean sortu zen, eta nire azalpenak milagarren urtearen inguruan hasten dira: Zuberoako eta Biarnoko biztanleriak sortu zirenean. Gero, bien arteko elkarrekintzak azaldu ditut, eta, ondotik, Zuberoako jaun batek hango herritarrak Eskiulako lurretara nola etorrarazi zituen ere kontatu dut.

Eskiulako euskararen egoera da liburuaren ardatza?

Biarnoko euskaldunak dihardut, bai: Eskiula inguruan bizi diren euskaldunak.

Zein da euskararen egoera Eskiula inguru horretan?

Eskiulan biztanleen erdiak badaki euskaraz, baina Iparralde-

ko beste lekuetan bezalaxe, ongi dakitenak zaharrenak dira: gazteen %10ak daki euskaraz, eta zaharretatik gehienek. Zenbat eta gazteago, orduan eta gutxiago egiten dute euskaraz. Egoera latza da. Esaterako, lehen euskaldun gehiago zeuden Eskiulan Zuberoako Barkoxen baino, baina orain alderantzizko egoera dugu. Argia da hezkuntzaren eragina horretan: Barkoxen badute eskola elebiduna, eta irakasten zaie bai frantsesez, bai euskaraz; eta Eskiulan, aldiz, ez.

Biarno mugakoa duzu familia, baina azken urteetan ez zara bertan bizi izan, ezta?

Aitaren familia osoa bertakoa da. Ni, Frantziako leku askotan bizi izan naiz. Ondoren, Espainian ere bai, eta, orain, Durangaldean. Nerabezaroan gertura-



tu nintzaion euskarari: prozesu pertsonal bat izan zen.

‘Biarnoko euskaldunak’ liburua non eskuratu daiteke?

Azokan, Gerediaga Elkartearen erakustokian izango da salgai, eta abenduaren 7an, 16:00etan, Areto Nagusian egingo dudan aurkezpenera ere eramango ditut ale batzuk.



“ELORRIXOKO DENDAK ERAKUSGAI”

Abenduak 6
10:00-15:00
17:00-20:00

Elorrion.
Plazako Frontoian



EUSKO JAURLARITZA

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA
TURISMO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO



Box alokairua

Bestelako mekanika bat posible da



Erraz, denbora eta dirua aurreztuz

Tailer mekanikoa ulertzeko modu berri bat, ibilgailua zeuk konpondu ahal izan dezazun. Gidariekin eta erabiltzaileekin prezio onean euren ibilgailua konpontzeko gunea, zain egon gabe eta dirutzarik xahutu gabe, bakoitzak behar dituen ordeztoko piezak ekarri edo bertan eskuratu ditzake-eta.



Zure eskura jarriko dugun tailer batean

Makina arloan azkeneko teknologia zure esku, eta RTVk behar duten bezero guztiei eskaintzen dien doako aholkularitza ere bai. Gainera, ordeztoko piezen denda ere badugu, behar duzun guztia eskuratzeko.



Aste osoan (astelehenetik igandera)

Bezeroen beharren arabera egokituta, RTVk ordutegi malgua du, astelehenetik igandera, 09:30etik 21:30era ditu zabalik ateak, bakoitzak aukeratu dezan bere ibilgailua zaintzeko ondoen datorkion unea.

Erreserbatu zure boxa

Eman izena trebakuntza ikastaroetan!

azkar!

Olio eta iragazkia aldatzea

24€
-tik
hasita

Errekuntza-tokia eta haizearen iragazkia aldatzea

44€
-tik
hasita

info@reparatuvehiculo.com
www.reparatuvehiculo.com



RTV Iurreta
Durango-Bilbo N-634 errepidea, 82 km
UEI-3 poligonoa, 5 zk. behealdea
48215 Iurreta
Tel.: 946 817 914

RTV Basauri
Bilbondo ZK Artunduaga
Bastegi kalea 1A
48970 Basauri
Tel.: 944 008 760

RTV Barakaldo
Max Center ZK
Karega kalea, 35 3A
48903 Barakaldo
Tel.: 944 904 728

“Gerediaga Elkarateak lan izugarria egin du euskararen eta euskal kulturaren alde”

Mikel Azkarragak ‘Mitrabaneko koba’ haurrentzako liburuen itzulpena dakar Durangoko Azokara

> MARKEL ONAINDIA

Nepalera egindako bidaia batean liburu bat gustatu, eta haren itzultzaile amaitu du Mikel Azkarragak. Badu xarma berezia ‘Mitrabaneko koba’ liburuak. Eskuz egindakoa da, material ekologikoagaz. Dheeraj Nath Amatya da idazlea, eta 24 hizkuntzatarara itzulita dago. Gaurtik aurrera euskaraz ere bai, Azkarragari esker. Durangoko Azokan, Gerediaga Elkaratearen standean erosi ahal izango da.

Zelan sortu zen proiekturako ideia?

2012ko urrian oporretan joan ginen Nepalera. Hilabeteko oporrak izan ziren, *treking* bi egitera, Annapurnakoa eta Everestekoa. *Treking* batetik bestera Katmandun egin genituen egun batzuk, eta han denbora zelan edo halan eman behar da. Gu hango liburu-denda batera joaten ginen sarritan. Topatu nuen ipuin bat oso erakargarri egin zitzaidana, eskuz egindakoa delako. Apal batean hamar bat zeuden, hainbat hizkuntzatan: alemanieraz, frantsesez, espainolez, ingelesez... Txinez ere uste dut badagoela itzulita. Hain egin zitzaidan erakargarri, non erosi egin nuen. Gero zera pasa zitzaidan burutik: Hau euskaraz ez badago, eta ni itzultzaile izanik, zergatik ez itzuli?

Eskuz egindakoa izateak sortu zizun interesa...

Nik ez dakit zelan egiten duten, baina azala ikusten baduzu, botoi bat ere badauka, sokatxo bategaz... Esaterako, frantsesezkoak Frantziako bandera eta Katmandukoa dauzka, eta euskarazkoari ikurrina ipini diote. Banan-banan egindakoak dira, usaina ere espeziala dauka. Orria Everesten behealdean hazten den arbola batetik ateratakoa da. Berritro hazten da, eta ez dute hango ekosistema degradatzen. Eurek horregatik esaten dute liburua ekologikoa dela.

Zelan egin zenuen itzulpena?

Handik ekarri eta itzulpena hemen egin nuen, oraindik idazleagaz kontaktuan

ipini barik. Gero kontaktua posta elektronikoz egin nuen, eta esan nion itzulita neukala. Bere ardura dirua zen, baina esan nion ez zela arazo izango, azken batean nire kapritxo bat izan zelako. Han 125 ale geratu ziren; ez dakit zer edo zer saldu den. Noski, handik euskaldun gutxi agertuko dira, eta, gainera, topatu egin behar da bere denda. Hemen saldu ditut batzuk, eta Jose Antonio Azkorbebeitiari eskerrak, Durangoko Azokan Gerediaga-ko standean egongo da salgai.

Zer kontatzen du ipuinak?

Ez da ipuin tradizional bat, ahoz aho transmititu dena. Idazleari otu zitzaion. Oihan batean familia gisa bizi diren animaliak dira protagonistak. Momentu batean, batzuei okerkeri bat egitea bururatu eginen dira, euren segurtasuna bermatzeko, bakean bizi daitezen. Hori bai, idazlea izango banintz, beste ikuspuntu bat emango nioke; zigorraz baliatzen direnez, azkena apur bat gordina da. Baina ni itzultzailea naiz, eta ezin dut hori aldatu. Balio batzuk erakusten dira: elkartasuna, laguntasuna... Baina nik puntu hori topatu diot. Gurasoekin batera irakurtzeko liburua da, adibidez, edukiak komentatzeko.

Beste libururik itzuli izan duzu?

Ez. Beste liburu bat ere ekarri nuen, luzeagoa, baina ez dut astirik izan.

Baina itzultzaile beharretan zabilta?

Bai. Bikoizketa etxe baterako egiten dut lan, ETB1erako, batez ere. Protestan gabilta, ez dagoelako apenas beharrik. ETBko programa arduradunei-eta ez dielako ardura edo... Esango nuke bikoizketa lana galdu egingo dela. Umeentzako, euskararen trasmisiorako, oso garrantzitsua da. Doraemon eta horiek guztiak zahar-zaharrak dira, eta horrekin dabilta programazioa betetzen. Batez ere, marrazki bizidunak eta dokumentalak itzultzen ditut. Baina oso material gutxi ailegatzen da; esaterako, aurten ez dut ia dokumentalik itzuli. Material pilo bat

daukatenez lehendik, ez dute dirurik gastatu gura berria egiten. Umeek zer egiten dute? Bada, umeak ez dira tontoak, eta konturatzen dira zaharra dela, eta Clan bezalako gaztelaniazko kateetara jotzen dute. Eta ez dute euskaraz telebistarik ikusten.

Zer da zuretzako Azoka?

Azoka beti izan da erreferente bat. Ez bakarrik irakurzaleontzat eta idazleentzat, jende guztiarentzat baizik. Gerediaga Elkarateak lan izugarria egin du euskararen eta euskal kulturaren alde. Niri, egia esan, gustatuko litzaidake egunen batean nik idatzitako liburu bat han balego.

Zelan bizi izaten dituzu Azokako egunak?

Ni ahalegintzen naiz urtero joaten. Inoiz gertatu da asteburu pasa ere joatea, baina saiatzen naiz hemen egoten eta egun pare batean bisita egiten, eta giroa bizitzen. Ezer erosi ez arren, giroa espeziala da. Eta Durangoko baten-tzat –ni ez naiz durangarra–, are gehiago. Harro egoteko modukoa da.

Kanpotik datozenentzat aholkurik?

Nik neuk, behintzat, azoka bera ikusteko, gurago izaten dut bakarrik joan. Osterantzean ez duzulako disfrutatzen, edo ez duzulako ikusten zuk gura duzun moduan. Barruan, bakarrik ibiltzea gustatzen zait. Eta, gero, hortik kanpo, lagunekin nahi izaten dut trago bat edo hartu.

Liburu edo disko jakinen batw erosteko asmorik aurten?

Inoiz eduki dut liburu konkreturen bat erosteko asmoa. Baina oraingoan, ea zer topatzen dudan. Ideia bategaz zoaz, eta liburu bategaz barik dozena-erdigaz irtetzen duzu. Iaz horrela irten nuen. Batzuk apalean geratzen dira, baina beno. Musika ez dut hainbeste erosten, batez ere, liburuetara joaten naiz.



AZKEN PISUAK SALGAI, ETORRI IKUSTERA.
BIGARREN FASEAREN HASIERA 2014-an



Bi logelako pisua garajearekin 194.000€!

Domotica, horma armairuak eta interneterako doako konexioa prezioan barne.

Sartu www.promotoraargolabe.com- en eta ikusi argazkiak

Tel.: 946 814 495 / 650 397 007 · www.promotoraargolabe.com